



"Orain merkatariak bezeroaren bila joan behar du"

Amalur Angiozar | Gipuzkoako Bazkundeko Lurralde Sustapen arduraduna | 8

Aloña Mendiko lehengo jokalaria eta oraingoak, elkarren kontra | 23



Danbor hotsekin iragarri dituzte Sanjuanak | 13

Rezusta txapeldun!!!

Ibai Zabalar 10-22 irabazita lortu du Bergarako pilotariak urteko bigarren txapela, oraingoa buruz burukoan | 22



Beñat Rezusta
Bergarako pilota
elkarteko ordezkari
Reyes Azkoitiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

SINADURAK

	RUFINA OLASAGASTI 9
	UBANE MADERA 9
	ENEKO BARBERENA 15
	ANDRES OSA 'SAKONA' 17
	IÑAKI AGIRIANO 19
	OIHAN VEGA 37
	AINHOA LARRAÑAGA 40

'Flashmob' jendetsua Guardia Zibila Oñatitik joan dadin eskatzeko

'Fan hemendik, utzi bakean' izan zen manifestazioan erabilitako leloa | 5



Flashmobeko une bat. | I. SORIANO

Mila pertsonak eskatu dute Uribetxebarria aske uzteko

Prozesu judizial "zentzugabea" dela salatu dute | 5



Emausen Ekocenterra, Arrasateko Bidekurtzeta kalean, Musakola auzoan. | J.I.



Dendan dituzten altzarietako batzuk. | J.I.

Emaus: beste eredu batera bidean urratsa aurrera, Arrasaten

- Bigarren eskuko denda Ekocenter bilakatu dute
- Formaziorako gunea ere izango da, lehengoaz gain
- Bi langile gehiago ditu, eta behar ditzake gehiago

JULEN IRIONDO | ARRASATE

2009an iritsi zen Emaus Arrasatera, eta ordutik hona emandakoak bata bestearen izenari are estuago lotzeko norabidean egindako urratsak izan dira. Bigarren eskuko arropa denda izan zen aurrena; gune berria egokitu eta lehengoaz gain altzari eta bestelakoak saltzen hastea gero; eta Nafarroa etorbidea utzi –hasieratik gaur arte han izan da Emaus– eta Musakolara lekualdatzea orain –Udalak utzi dio tokia, prezio sinbolikoarekin, 25 urterako–, leku aldaketa soila baino gehiago izan denarekin. Azalera handiagoa, aukera berriak, berrera-

bilpenaren alde eta gizarte bazterkeriaren kontra diharduen fundazioarentzat.

"Ekocenterrak [aurrez Donostian eta Irunen dituzte], guretzako, lan espazioak izateaz gain, bigarren eskuko produktuen salmenta puntu izateaz gain, beste zerbait ere badira, kontzeptu bat dira", dio Gizarteratzerako arduradun Nerea Kortajarenak Arrasateko gune berrian oraindik hutsik ikus daitekeen espazio zabal bat erakusten digula, Emausen beste jardueretako bat azaltzeko: "Formazioa eta lan gaitasunekin erlazionatutako progra-

mak eta zerbitzuak martxan jartzea da gure asmoa. Guk beti egiten dugu lan bazterketa egoeran dauden pertsonekin, eta gure asmoa zentzu horretan izaten da pertsona hauei gaitasun eta trebezietan garatzeko aukera emateko espazioak sortzea: tailerrak egiten ditugu, formazio programak, orientazio programak, eta horientzako egokitutako espazio bat izango da hau", dio lekua seinalatuz.

Elkarlanerako asmoa

Jarduerari dagokionez berrikuntza nagusietakoa hori, bi solai-

ESANAK



"Herri honen kohesioan parte hartu nahi dugu Ekocenterretik"

NEREA KORTAJARENA | EMAUS

ruko eraikinean behekoan, biltegia ere egongo den lekuan –jasotako materiala sailkatu eta atontzeko lekua–, Sindesperdicio markako osagarriak egiteko –joste lanetarako– tailerrarekin batera. Eta goiko solairuan dituzte salgai iragarki-banderatxoekin egindako osagarriok eta gainerakoak –goiz eta arratsalde; zapatueta, goizez: arropa, liburuak, jostailuak, altzariak eta etxerako beste hainbat gauza eta gailu, bigarren eskukoak –bertara eraman daitezke edo 943771871 zenbakira deitu–.

Leku aldaketarekin, langile kopurua ere aldatuko da: sei ziren orain arte, eta bi gehiago izango dira aurrerantzean, Emausek

bere buruari ezarritako beste helburuetako batean urratsa eginenez: "Hemen lanean ari diren behargin guztiak langileak dira, kontratatuta daude, edozein enpresatan bezala, eta beraien berezitasun bakarra da laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak direla, nahiz eta gaur egun kontzeptu hori nahikoa zabala den", dio Kortajarenak, egungo egoeran "zailtasun berezi horiek" dituen "jende asko eta asko" dela gaineratuz.

Eta Emausen asmoa bada ahal den neurrian are jende gehiagori ematea lanerako aukera: "Iru-ditzen zaigu Ekocenterra martxan doan neurrian eta beste dinamika bat eta dimentsio batzuk hartzen dituen neurrian enplegua sortzeko moduan ere egongo dela". Seinale ona litzateke, berrerabilpenerako deia erantzun baikorra jasotzen lebilkeela ere esan nahi bailuke.

Eta honetan guztian beste batzuekin batera jardun nahi du Emausek: "Gure asmoa da bertako eragileei irekitako *co-working*-erako eta elkarlanerako espazioak sortzea baita ere". "Herriaren kohesioan eta komunitatea sortzen" euren ekarpena egin nahi dute, eta "bailaran eta Arrasaten eragile aktibo izan": "Ilusio handiz heltzen diogu erronka berriari".

Bideoa ikusteko:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



**ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA**

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

**2014
ekainak 21**

**uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15**

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatuek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





Eskiekin eta lorontzi bihurtutako katuskekin egindako apaingarria. | J.I.



Sindesperdicio markako osagarriak, iragarki-banderatxoekin eginak. | J.I.



Armairua —dagoeneko salduta—. | J.I.



Arrasateko alkatea eta Gipuzkoako Ingurumen diputatua. | IRATI GOITIA

Larruzkoak barik, kafe zakuz eginikoak

Aurreko eguaztenean inauguratu zuten Arrasateko Ekocenterra, eta ordezkari politikoez izan zuten aukera bertan aurki daitezkeenak ikusteko eta kasuren batean probatzeko ere; adibidez, argazkiko jarleku horixe: egitura, bestela zabortegean amaituko zukeena; eta gainerakoa kafe zakuz egina: "Bidezko merkataritzako kafe zakuak dira, ze hori ere edukitzen dugu kontuan: beste kontsumo mota bat posible dela eta beste era bateko harremana izan dezakegula ekoizleekin". Beraz, erabat berrerabilitako gauzeekin egina, dotorea eta erabilgarria, eta mezua ere baduena. Eta egileek ere merezi dute aipamena, birgizarteratzeko Emausen zentroetan egiten dituzte—eta halakoak, aurretik "kalean eta bazterketa egoeran" zeuden pertsonak, Nerea Kortajarenaren arabera.

Eta, adibidez, ordezkari politikoen hitzalditxoetarako erabilitako atrila ere kaxoi-altzari bat izan zen: "Agerraldi asko egiten ditugu, baina lehen aldia dut horrelako atril batekin, eta ohore bat da; segun eta ze mentalitate, lotsagarrikeria irudi zekioken baten bati. Baina hau da egin beharrekoa; hau harro egoteko kontua da. Eskerrak eman dizkigu gaur Emausek [511.000 euro jarri ditu Aldundiak Ekocenterrera], baina eskerrak geuk eman behar dizkizuegu zuei, arazo bat ekiditen laguntzen duzuelako", zioen Ingurumen diputatu Iñaki Errazkinek.

EKOCENTERREKO LANGILEAK



ISABEL FERNANDEZ

"Emausek ditu era guztietako langileak, baita formatuak ere"

"Irailetik nabil Emausen. Langabezian nengoela, saiatu nintzen formatzen. Lan-poltsa baten sartu nintzen, postua atera zen, elkarriketa egin eta aukeratu egin ninduten. Emausek era guztietako langileak ditu, baita langile formatuak ere. Laneratzeko aukera ematen duen enpresa da lanpostu bat eskaintzen dizun heinean, baina, bizi dugun garaian eta egoeran, beste edozein enpresa pribatutan gertatzen den bezala. Pozik nago lanarekin, dagoen mugimenduagatik; askotariko jendea etortzen da. Bigarren eskuko denden kultura gero eta handiagoa dugu. Eta ari gara aurreiritziak galtzen ere".



IÑIGO PANDO

"Birgizarteratze kontratu batekin sartu nintzen, INEM bidez"

"Ni INEM bitartez sartu nintzen, birgizarteratze kontratu batekin. Bi urte neramatzan lanik gabe; Gureak—en egon nintzen lanean sei hilabetez, eta handik irtetean deitu zidaten hemendik. Aurretik pintore, errebarbatzaile... gauza askotan ibilia naiz. Emausen pozik nago, lanean nago eta ez da gutxi; lan ona egiten du Emausek birziklatzeari dagokionez, eta baita birgizarteratzean ere. Jende askok ditu laneratzeko zailtasunak. Hemen ibiltzeak ez dakit lagunduko didan besterik aurkitzen; krisia pasatzen bada... Esperientzia hartzeko balio izan dit behintzat".



DORALBA BERGARA

"Badut esperantza hau bukatzean beste zerbait aurkitzeko"

"Iragarki bat ikusi nuen: pertsona bat behar zuten josteko, Sindesperdicio markako poltsak egiteko. Lanik gabe nengoen, baldintzak betetzen nituen eta onartu egin ninduten. Askok gustatzen zait lana; asko gustatzen zait jostea. Zazpi urte daramatzat Arrasaten, eta, lan egin izan dudan arren, inoiz ez dut kontraturik eduki. Hemen gauza asko ikasi ditut, etorkizunerako asko balioko didatenak; ze arlo desberdinetan ibili naiz: arrokekin, altzariekin...; edozertan moldatu ahal izango nintzateke. Badut esperantza uztailean hau bukatzean beste zerbait aurkitzeko".

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

TEKNOLOGIA

499 €



32LB650V 3D LED TELEBISTA
A sailkapen energetikoa
Magic agintea barne



49,90 €/hileko

DOAKO FINANTZAKETA
10 hilabetez

Eskaintza baliagarria
2014ko ekainaren 25era arte

>> Oñati gestio heziketa

Lanerako gertu!



VICTOR GARGALLO
Zuzendaritza Idazkaritza

Kaixo, Victor Gargallo Sales naiz eta Zuzendaritza Idazkaritzako lehen maila ikasten ari naiz. Esperientzia hau oso ona izaten ari da, kursoaren edukia ondo osatua dago eta lan munduari begira oso baliagarria ikusten dut. Instalazioak, bestalde, bikainak dira. Gainera, praktikak atzerrian egiteko aukera ematen digute y dagoen Lan-Poltsa ere oso zabala da.



ALAZNE MARTIN
Salmenten Kudeaketa

Ikastetxe honetan 6 hilabete daramatzagu eta oso gustora gaude, klaseko harremana bikaina da eta irakasleekin oso harreman ona daukagu. Honetaz gain, instalakuntza ezinhobeak ditugu (ordenagailuak, proiektorea...) bai klaseak emateko baita bidaltzen dizkiguten lanak egiteko. Liburutegia ere asko erabiltzen dugu gure lanak jorratzeko. Esan beharra daukagu aukera ikaragarria eman digutela benetako enpresa batzuekin elkarlanean aritzeko eta 2 proiektu egiten ari gara beraientzat. Gainera, gure formakuntza bukatzeko, atzerria joateko aukera daukagu praktikak egitera. Azkenean, modulo honen ostean zein den errealitatea ikusi beharko dugu eta aukera guzti hauekin asko ikasten ari gara. Eskerrik asko.



ADEI MONDRAGON
Salmenten Kudeaketa



MAITANE LASA
Administrazioa eta Finantzak

Goi mailako heziketa ziklo bat egitea irteera ona eta azkarra da lan munduan murgiltzeko. Ni Administrazioa eta Finantzak egiten hari naiz eta ziklo oso interesgarria eta osotasun handikoa iruditzen zait. Gainera beka baten bitartez lanean egoteko aukera eman didate eta oso aberasgarria izaten ari da.



ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

Ekainak 18, 18:00



ESKaintza Akademikoa:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- ZUZENDARITZA IDAZKARITZA
- SALMENTA KUDEAKETA

+

"LANBIDE HEZIKETA,
LAN MERKATURA
SARBIDEA"

Hitzaldia

JOSE LUIS ALONSO

UNIBERTSITATE-ENPRESA
HARREMANEN ARDURADUNA

Josu Uribetxeberriaren askatasuna eskatu dute

Ireki dioten prozesu judiziala "zentsugabea" dela eta epaileek "mendekuz" jokatu dutela salatu dute

TXOMIN MADINA | ARRASATE
Kantuan hasi eta bukatu zuten egubakoitz arratsaldean Josu Uribetxeberriaren egoera salatu eta bere askatasuna eskatzeko Arrasaten egindako manifestazioa. Berau deitu zuten Euskal Preso eta Iheslarien Eskubideen Aldeko Herri Bilguneko kideen esanetan, mila pertsona inguru batu

ziren bertan, bai Arrasatekoak eta baita kanpokoak ere.

Uribetxeberria, balkoian
Herriko erdigunetik egin zuten ibilbidean etengabeak izan ziren Uribetxeberriaren askatasuna eskatzeko oihuak. Bere etxe ondok pasatzean, zain zuten balkoian preso arrasatearra; txaloz agurtu zuten manifestari ugarik.


bizirik segitzen duenez, prozedura judizial "zentsugabea" ireki diotela, etxetik irtetea debekatuz. Atxilotu zutenetik hamazazpi urte pasa ostean duela 30 urte egindako ekintza bat leporatzearen eta jarri dizkioten neurrien atzean "mendekua" dagoela sala-



Egubakoitzeko manifestazioa Arrasateko kaleetan. | MIRARI ALTUBE

tu zuen, eta, gaineratu, "lehenagotz" jarri dizkiotela epaileek neurriok. Adierazpenarekin bat egiten dutenek Uribetxeberriaren egoera salatu eta

bere eta gaixo dauden beste euskal presoek askatasuna eskatzen dutela esan zuen; eta giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde daudela gaineratu.



Uribetxeberria, balkoian. | M.A.

"Zentsugabekeria"

Manifestazioaren ostean Mariasun Pagoagak hartu zuen hitza deitzaileen izenean. Irakurritako adierazpenean azaldu zuenez, minbizia egoera aurreratuan zegoelako kaleratu zuten Uribetxeberria eta gaineratu zuen ziur daudela, legeak dioten moduan, gaixotasuna antzeman zioten lehen aldian kaleratu izan balute, egun egoera hobean egongo litzatekeela.

Esan zuen preso arrasatearrak uneoro bete izan dituela espetxetik irtetean Zaintza Epaitegiak jarritako neurriak eta salatu zuen

Dispertsioaren aurka, pilotakadak

Aurrez Debagoieneko beste herri batzuetan egin bezala, asteburu honetan Aretxabaletan eta Elgetan egin dituzte Etxeratek abian jarritako *Pilotakadaz pilotakada* dispertsioaren aurkako pilota jaialdiak. Elgetan, egubakoitzean izan ziren partiduak; Aretxabaletan, zapatuan, Iturrigorri pilotalekuan.



Aretxabaletan, Kepa Urria euskal preso ohiak egin zuen. | M.A.

'Flashmob' jendetsua egin dute Oñatin Guardia Zibila herritik eta Euskal Herritik joan dadin eskatzeko

T.M. | OÑATI
Laugarren urtez egin zuten zapa-tuan Oñatin Fan Hemendik! eguna eta herriko eta Debagoieneko jendeak ez ezik, urrunagotik joandakoek ere hartu zuten parte antolatutako ekitaldietan; esaterako, Azpeititik edo Altsasutik joandakoek.

Hainbat berrikuntza izan dira aurtun Fan Hemendik! egunean, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten. "Oso gustura gaude. Goizeko jolaspoteoak, esaterako, erantzun ona izan du.

Bazkaltzeko ia 400 pertsona elkartu gara, eta tabernetan egindako kontzertuak ere oso ondo joan dira. Egin dugun flashmob-ak eguna borobildu du" adierazi du Fan Hemendik! batzordeko kide den Julen Romaratezabalak.

'Flashmob' jendetsua

Flashmob-a izan da, hain zuen ere, Guardia Zibila Oñatitik eta Euskal Herritik joateko eskatzea helburu duen egunaren berrikuntza deigarrienetako bat. 19:30ean abituta *Fan hemendik*.

Utzi bakean leloa zeraman pankartarekin manifestazioa Guardia Zibilaren kuartelera heltzean egin zuten, Ertzaintzaren begiradapean. Egurra Ta Kitto taldearen *Errefusa* abestia erabili zuten *flashmob*-erako, eta aipatzeak da taldekoak ere bertan egon ziren.

Flashmob-a bukatzean, berriz ere indartu ziren txistuak eta Guardia Zibila joan dadin eskatzeko oihuak; ondoren, aurrera jarraitu zuen manifestazioak, txosnagunean amaitu zen arte.



Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean egin zuten *flashmob*-a. | T.M.

28 urtez San Antonioko apaiza izan zen Serafin Esnaola omendu dute

T.M. | ARRASATE
Bergarako San Antonio auzoan jaiak izan dira asteburuon, eta atzo, 28 urtez auzoko apaiza izan zen Serafin Esnaola omendu zuten. Izan ere, zapatuan bete ziren 50 urte Esnaolak San Antonion lehen meza eman zuenetik.

Omenduak ateratako irudiak

Bildu zen jende kopuruak txiki utzi zuen ekitaldia egin zen auzoko ermitan, eta, bertan, Serafin Esnaolak berak San Antonioko apaiza zela 1965 eta 1988 urteen artean ateratako argazkiak eta bideoak erakutsi

zituen Migel Anjel Elkoroberezibarrek: auzoko jaietako danborradak, lasterketak, Gure Ametsa elkartearen inaugurazioa... Irudietako protagonistetako hainbat zeuden atzo ermitan, eta emanaldian zehar etengabeak izan ziren komentarioak; egon zen dagoeneko hilda dagoen senideren bat ikusi eta hunkitu zenik ere. Serafin Esnaola estimatua zen oso auzoan, eta hori ere argi geratu zen atzoko ekitaldian: "Pertsona oso aktiboa izan zen, herrikoa, eta bere ekintzek auzo bat eta herri bat gorpuztu dute" azaldu zuen Elkoroberezibarrek.

Markel Olano izango da berriz ere EAJren diputatu nagusigaia

T.M. | ARRASATE
Gipuzkoako EAJren Erki Batzar-rak Markel Olano aurkeztu du asteburuan 2015ean egingo diren Udala eta Foru hauteskundeetan Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagai moduan. 2007 eta 2011 artean diputatu nagusi izan zen Olano eta gaur

egun EAJren bozeramailea da Batzar Nagusietan.

Donostiarako alkategai izango den Eneko Goia ere aurkeztu dute jeltzaleek baita Gipuzkoako beste hamalau herritako alkategaiak ere, baina ez Debagoieneko herrietarako hautagairik.



Tavesaraino helduko da Bergara eta Elorregi lotuko dituen bidegorria. | IMANOL SORIANO

Bergara eta Elorregi lotuko dituen bidegorriaren lizitazioa martxan da

Soraluze eta Bergara artekoa itxita egongo da gaur eta bihar, lanengatik

MIREN ARREGI | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergara eta Elorregi arteko bidegorria egiteko lizitazio prozedura ipini du martxan.

Bergara eta Elorregi lotuta

Aurreikusten da Bergara eta Elorregi auzoa lotuko dituen bidegorri hau Bergarako Labegaraie-ta kale amaieran hasi eta Tavesa enpresaren lursailen mugaraino iritsiko dela. Horrela, 2,6 kilometro luze izango da eta lau metroko zabalera izango du.

Oinezko eta bizikletentzako bidegorri zati hau bukatutakoan San Prudentziotik Oñatira eta Arrasatera doazen bidegorriekin lotura egiteko 500 metroko zatia baino ez da faltako. Bidegorriaren zatirik handiena errail estuko trenbide zaharraren trazatuan egingo da.

Miloi bat euro

Bidegorri hau egiteko lizitazioaren oinarritzko aurrekontua milioi bat euro ingurukoa da BEZa barne, eta behin esleitu ondoren lanak egiteko epea lau hilabetetako izango da. Ongi bidean, lanak urte amaieran bukatuko dira.

Aldundiak ia erdira jaitsi du aurrekontua, hasierako proiektuaren aurrekontua bi milioi eurotakoa zen-eta. Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera eman du esfortzu handia egiten ari direla proiektuak berraztertze eta, funtzio berak mantenduz, proiektu askoz era xume eta egingarriagoak bultzatzeko. Euren esanetan, bidegorri hau da horren adibidetako bat.

Lur publikoak

Aurreikusten da obra guztiak jabego publikoko lurretan egingo

direla. Hain zuzen, ia lur gehienak Bergarako Udalarenak eta Adif-enak dira. Aurreikusten da, Bergarako Udal batzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari dohainik eta 25 urtez bere jabetzako zatiak lagatzea, aipatu proiektuaren obrak exekutatu eta bizikleta eta oinezkoek erabilgarri izan deza-ten. Bestetik, Adif-i eskatu zaio bere jabetzako zatiaren erabilera baimentzeko, emakida administratibo baten bidez.

Bidegorri zatia itxita

Soraluze eta Bergara arteko bidegorria itxita egongo da gaur 08:00etatik biharko 18:00etara. Sastrakak kendu eta garbitze lanak egin behar dira eta horregatik egongo da itxita. Lanak egiten ari diren bitartean, harriak eta bestelako objektuak erortzeko arriskua dagoelako itxiko da, hain zuzen.

Urteko kontuak eta kudeaketa plana aurkeztu ditu Goienak

Batzar nagusian eman ditu bere jardunaren gaineko azalpenak komunikazio taldeak

M. ARREGI | BERGARA

Urteko batzar orokorra egin zuen egunean Goiena Komunikazio Taldeak Kulturaten. Bertan elkartu ziren Goienako bazkide langileak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide laguntzaileak. Aurrekontuak eta 2014ko kudeaketa plana izan ziren puntu garrantzitsuenak. 2013a 10.000 euroko alde negatiboarekin bukatu zuen Goienak eta 2014rako aurreikuspenak ez dira hobeak. Iban Arantzabalek, Goienako Zuzendari Nagusiak, esan zuen urte zaila izango dela aurtengoa eta horrek diru kontuetan eragina izango duela. Hala, aurrekontu defizitarioa aurkeztu zuten 2014rako.

Kudeaketa plana

Goienak esku artean dituen proiektuak ere aurkeztu zituzten batzarrean. Euskarazko hedabideekin elkarlana, esaterako. Arantzabalek dio elkarlan horrek ekarri handia izango duela Goienarentzat.

Komertzial arloak ere badi-tu erronkak. Besteak beste, Debagoieneko gida komertziala eta *Aurreztu.com* ataria. Talde komertzialak badihardu publizitate formula berriak sortzen eta bide horretan jarraituko du aurrerantz ere.

Komunitatea

Herritarrendako eta herritarrekin egindakoa izan gura du Goienak eta bide horretan estrategikotzat jotzen dute *Goiena.net* atariko *Komunitatea*. Sarean badago dagoeneko, baina asmoa da, komunitateak Goienaren gainontzeko euskarrietan ere presentzia izatea.

Paperari dagokionez, asteleheneneko berraztertzen dihardu Goienak eta asmoa da aldaketak egitea, herritarrendako erakargarriago egiteko. Goiena telebistaren gainean, berri, programazio berriak eman ditu fruituak. CIESen datuen arabera, ikus-entzule kopuruak gora egin du-eta.



Goienaren batzar nagusia Kulturaten, egunean. | MARTIN LARREA

Eguenean egingo da langabeei zuzendutako Lanbai azoka, Garaian

IRATI GOITIA | OÑATI

Eguenean egingo da Lanbai enplegu eta formazio azoka. Bereziki langabeei zuzenduta dagoen azoka da eta Garaia Berrikuntza Gunean egingo da 15:00etatik 19:00etara.

45 enpresa

Sektore askotariko enpresak izango dira azokan: Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Danobat Group, Laboral Kutxa, Irizar... Orotara 45 enpresa.

Azokak lau gune izango ditu: lan poltsa eta orientazio gunea, curriculumak uzteko enpresa gunea, elkarriketa gunea eta unibertsitateak duen

formazio espezializatuari zuzendutako gunea.

Bi dira helburu nagusiak. Batetik, graduatuak eta enpresa eta erakundeak harremanetan jarri gura ditu. Bestetik, graduatu ondoren dauden formazio aukera espezializatuak ezagutzera ematea.

Elkarlana

Mondragon Unibertsitateak eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatu dute azoka, baina beste erakunde eta eragile batzuen laguntza ere izan dute, besteak beste: Arrasate Geroa Ganoraz, Eures, Lanbide eta Eusko Jaurlaritza.

Abertzaleen etorkizunaz, Joseba Egibar Eskoriatzan

Eskoriatzako batzokian hitzaldia eman zuen egunean Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentek. Bertan adierazi zuen abertzaletasunak etorkizunari begira duen desfiorik handiena hauxe dela: zein erabaki hartu behar diren eta hurrengo zein helburu jarri behar diren zehaztea.



AMAIA TXINTXURRETA

Produktu berriak atera ditu Natrak European eta AEBetan

Galletekin egindako igurzteko kremak aurkeztu ditu

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Mikel Beitia oñatiarrak zuzentzen duen Natra enpresak produktu berria du merkatuan: galletekin egindako igurzteko txokolate-krema lerro berria. Lerro hori Kolonian, Alemanian egiten den ISM azokan aurkeztu zuen eta kremen kategorian "nabarmendu" egin zen, Natrak jakinarazten duenez.

Hain zuzen, bost barietate aurkeztu zituen Natrak Alemanian: Maria galletekin egindako krema, gurinezko galletekin egindakoa, txokolatzeko pipita edo zatitxodun galletena, esne-gainez betetako txokolate beltzezko galletena, eta gluten bako Maria galletena.

Liderrendako ekoizten

"Garatu berri diren produktuek oso harrera ona izan zuten Koloniako azokan", esan du Natrak. Valentzian oinarritutako enpresak esan duenez, barietate haieriko batzuk dagoeneko merkaturatzen dabil hainbat herrialdetan: hain zuzen, gurinezko galletekin eta txokolatzeko pipitadun galletekin egindako kremak "Alemanian marka lider eta joera-sortzaileen artean" merkaturatzen dabil, eta esne-gainez betetako txokolate beltzez egindakoa, Espainian. Gainera, azken hori Ameriketako Estatu Batuetan komertzializatzen hasi da laster Natra.



Alemanian ISM nazioarteko gozogintza azokan izan da Natra. | ISM

Beste 1.000 tona produzitu

Ameriketara gero eta indartsuago izatea da Natraren helburu estrategikoetako bat, eta, horren harira, honakoa azaltzen du enpresak: "Bezeroen eskaerak aintzat hartuta, garatu berri diren produktuetatik abiatuta beste bi igurzteko krema ekoizten hasi da, horiek ere Ameriketako merkaturako". Hain zuzen, almendrazko galletekin egindako krema organikoa eta bainillazko galletekin egindako krema organikoa.

Igurzteko kremak egiten ia 50 urteko ibilbidea du Natrak eta, 2013an, ia 37.700 tona ekoiztu zituen, 570 erreferentzia edo



Natraren produktu berria. | NATRA

izenekin. Aurten atera dituen produktu berriei bakarrik, beste 1.000 tona ekoiztea espero du gozogintza enpresak.

Fidelity, akziodun berria

Bestalde, aldaketak izan dira Natra enpresaren jabegoan. Hain zuzen, maiatzaren 5ean, AEBetako Fidelity International Limited-ek, munduko fondo kudeatzaile independente nagusietako batek, Natraren kapitalaren %1,15 -543.947 akzio- erosi zituela jakinarazi zion Balio-Merkatuaren Espainiako Batzordeari. Handik hilabetera, parte-hartze hori akzioen %7,064ra handitu zuen, Barten SAK oraindik zituen %5,318 erosi ondoren. Barteneko uko egin zion Natrako Administrazio Kontseiluan zuen postuari.

Fidelity akziodunen artean izatearen eta hark enpresaren proiektuaren gainean interesa erakutsi izanaren "oso balorazio positiboa" egin du Natrak.

Fidelity International Limiteden parte-hartzea gestora horren Iberia fondoaren barruan dago. Fondo hori Espainiako eta Portugalgo baloreetan espezializaturik dago, eta baita herrialde horietatik kanpo dauden baina irabazien zati handi bat horietan egiten dituzten enpresetan ere.

Natrak esan duenez, "Iberia fondoa, gaur egun, Espainiako burtsako fondo onena da hiru eta bost urteko epeetan ematen duen errentagarritasun aldetik eta, Morningstar-en datuen arabera, 2012a eta 2013a %21eko eta %33ko errentagarritasunekin itxi zituen, hurrenez hurren". Gogorazi duenez, 2014ko maiatzean %12ko errentagarritasun pilatua dauka.

Burtsan zuen balioa %143 handituta itxi zuen Natrak 2013. urtea, baina 2014ko lehenengo lau hilabeteetan, %14 galdu du.

Ignacio Ramonet, aurten Lankiren topaketan

L.K. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki Ikertegiak antolatuta, II. Kooperatibagintzan Topaketa egingo da ekainaren 20an, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Bigarren edizio honetan, hizlari ospetsu batek parte hartuko du: Ignacio Ramonet kazetari eta gizarte pentsalari galiziarra.

Topaketan parte hartzea doakoa da, baina goizeko saioan 100 lagun egon ahal izango dira bakarrik, eta kooperatibistek izango dute lehentasuna. Ramoneten hitzaldira 200 lagun joan ahal izango dira. Izena emateko, bidali mezua akareaga@mondragon.edu helbidera edo deitu 943 71 41 57 zenbakira.

Hitzaldiak eta eztabaidak

Hau da egitaraua: 09:30ean, Arrasateko kooperatibagintzaren bidegurutzeak eta desafioak (Igor Ortega, Lankiko ikerlaria); 11:15ean, talde-dinamika: Arrasateko kooperatibagintzaren erronken gaineko gogoeta eta eztabaida konpartitua; 14:30ean, Kooperatibagintzan aditu tituluko 5. edizioaren diploma banaketa; eta 15:00etan, hitzaldia *-Kooperatibagintza eta ekonomia solidarioa globalizazioaren erronken aurrean* (Ignacio Ramonet).

Etxetresnak, Mondragon eta Fagor Taldea "ez dira enpresa-unitatea"

EREarekin dauden aldi bateko langileen ordezkarien helegitea baztertu egin du epaileak

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnen konkurtso prozesuak eta Pedro Malagon epaileak orain bi aste kaleratu zuen autoak ondorioak ematen jarraitzen dute. Tartean, Fagor S. Coop. taldeari eta baita Mondragon Korporazioari ere arnasa ematen dion ondorio batek izan ere, epailearen esanetan, Mondragon Korporazioan dauden kooperatiba guztiak juridikoki "independenteak eta burujabeak" dira eta ez dute enpresa-unitaterik osatzen. Horrek esan nahi du baten erantzukizunak ezin zatzaizkiola besteari eskatu.

Adierazpen horrek garrantzi handia du, Fagor Etxetresnetako, Edesako eta Grumaleko aldi bateko langile izan ziren 326 laguni eragiten dien EREa negoziatzatzen ibili direlako egunotan. Hain zuzen, zapatuan bukatu

zen negoziazio epea. Berau konkurtso-administrazioak eta langileen ordezkariak egin dute. Likidazio planari langileen ordezkariak aurkeztutako helegite batek esaten zuenez, Fagor Etxetresnek, Edesak eta Grumalek "enpresa-unitatea" osatzen dute Fagor S. Coop. eta Mondragon


Korporazioarekin, eta hori aitoritzeko eskatzen zioten epaileari; baina epaileak ez du hori ontzat eman.

Fagor Taldeko iturriek epailearen balorazioa ona egin dute.

Negoizazio epea bukatu denez, finkatuta geratuko da EREa eta langile haiek ze egoeratan geratzen diren. Hasieran, 20 eguneko kalte-ordaina proposatzen zen, baina langileen ordezkariak 30 edo 45 eguneko eskatzen zuten.

Mondragoni eskaera

Bestalde, LAB sindikatuak, prentsa-ohar bidez, langileak "defendatu" ditzala eskatu dio Mondragon Korporazioari: "Pilota Fagor markaren jabe den MCCren teitlatuan dagoela uste dugu. MCCk erantzukizuna du Fagorren egoeran, eta erantzukizun hori bere egin behar du, daukan ardura asumituz. Fagor marka taldeko beste enpresa baten izenean dute, eta likidazioan Fagorreko industria jarduerarekin aurrera egiteko markaren erabilpena eskatuko dutenez erosleek, langile guztien eskubideak defendatzeko eskatzen diogu MCCri".



EUSKO JAURLARITZA

Alex Salmond-ekin Eskozian

Eskoziako lehen ministroa, Alex Salmond agurtu zuen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantza Tapiak, Eskozian egiten dabilen misio-bidaiaaren barruan. Eskoziako Energia ministro Fergus Ewing-ekin ere egon zen eta Eskoziako eta Euskadiko enpresen arteko lankidetzak aukerak aztertzen zituen. Energiaren sektorea 350 enpresa eta 24.000 langilez osatua dago Eskozian.



Amalur Angiozar. | GOIENA

Amalur Angiozar | Gipuzkoako Bazkundeko Lurralde Sustapen arduraduna

"Betiko zerbitzua ematen bagabiltza, zer edo zer gaizki egiten gabiltza"

- Egiteko moduak bezeroari egokitu beharra azaldu du Bazkundek
- Euskal Merkataritzaren Topaketan, hori izan zen mezu nagusia

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gipuzkoako Bazkundek eta Gipuzkoako hainbat merkatarik orain aste gutxi egin zuten Euskal Merkataritzaren XVI. Topaketa, *Ohikoa asaldatu* leloarekin. Amalur Angiozar da Bazkundeko Lurralde Sustapen arduraduna, merkataritza eta turismo gaiez arduratzen da, eta ohikoa aldatzeko beharra azpimarratu du. **Zergatik ohikoa asaldatu merkataritzan?**

Denok ari gara ikusten merkatua, bezeroak... aldatzen ari garela. Erosketa ohiturak desberdinak dira, gauza desberdinak eskatzen eta espero izaten ditugu eta merkataritza-enpresek aldatu beharra dute, ez dute beste irtenbiderik. Bezeroei nola erantzuten dieten eta merkatuak nola ari diren aurrera joaten begiratu behar dute. Beraz, beharra dago prozesu horretan sartzeko.

Zer da, bada, aldatu behar dena? Ez dago zerrenda bat; merkataritza-enpresa bakoitzak ikusi behar du bera non dagoen, ingurunea nolako den, merkataritzan ze sektore barruan dagoen, bere bezeroak nolakoak diren eta nola joan diren aldatzen, ze tendentzia dauden... eta horren arabera, planteamendu berriak egin. Aldatu behar dena kudeatzeko era da; askoz profesionalagoa izan behar da kudeaketa, emaitzak ere hobeak

izateko. Horren barruan arlo eta gai asko daude: marketina, Interneten parte hartzea edo ez...

Komertzio mota guztiek dute berri-tzeko beharra?

Ez da denetan behar berbera, bezeroak ere ez direlako denetan berdinak; baina beharra denetan dago. Batzuetan, beharbada, aldaketa sakonagoa izango da. Azken urteetan lan egiteko erritmoak askotarikoak izan direlako, edo enpresaburuaren profilaren arabera, abiapuntua desberdina da orain. Bakoitzak analisisia egin behar du: non dagoen, nola kudeatzen ari den bere enpresa eta nola dagoen bere ingurunea. Horren arabera, plan bat definitu beharko du.

Zelan dago Gipuzkoako komertzioa?

Egoera, jeneralean, ez da txarra. Nik beti pentsatzen dut alde ona ikusi behar dugula, alde txarra ere badagoela kontuan izanda. Hala, merkataria onak ditugu, oso ondo dabiltzanak, lan handia egiten, jakin izan dutenak nola

aurrera egin, enpresa eraldatu dutenak; batzuk kanpo merkatuan ere ari dira, nahiz eta denondako ere ez den hori bidea. Baina bada go beste talde bat –eta pena da, baina nahiko talde handia da– oraindik ez dena konturatu aldatu egin behar dela: bezeroa dela nagusia eta beti berari begira jardun behar dutela, beste modu batera kudeatu behar dutela enpresa.

Hain zuzen, bezeroak eskatzen duenari ez dabiltzala erantzuten...

Bai, hala da. Oraindik bere ohiturekin jarraitzen dute, eta ez dira pauso hori emateko gai izan, edo ez dute beharrik edo gogo handirik izan, eta oraindik ez dute erantzun hori eman.

Zer eskatzen du gaur egungo kontsumitzaileak?

Ez dago profil bakarra, eta profil bakoitzekoek gauza bat edo beste bat eskatuko dute. Merkataria bakoitzak jakin behar du zein den bere bezeroaren profila, eta horren arabera erantzuna eman. Argi dagoena hau da: merkatua asko ireki da eta

bezero asko Interneten sarri ibiltzen dira. Horrek ez du esan nahi betiko dendetan ez dutenik erosten, baina badute informazio gehiago. Bestalde, gero eta jende gehiagok, batez ere emakumeek, kalean lan egiten dute eta beste behar batzuk dituzte. Horrez gain, gehiago eskatzen da zerbitzu aldetik, produktua ona izan arren. Hori ere aldatu egingo da kontsumitzaile motaren arabera. Garrantzitsuena horixe da: nire bezeroa ondo ezagutzea eta, horren arabera, zerbitzu bat edo beste bat eskaintzea.

Oro har, eskatzen dena erantzun bat da: bezeroak behar bat dauka eta enpresak erantzun bat eman behar dio. Lehen, merkataria dendan, bezeroaren zain egoten zen, baina orain hori guztiz aldatu da: orain merkataria joan behar da bezeroa bilatzera, eta erakarri egin behar du. Hori era askotara egin daiteke. Azkenean, bezeroa gure denda gus-tura egotea lortu behar dugu: zerbitzuarekin, atmosferarekin, produktuak dendan ipinita dau-

den moduarekin... Beste bezero mota batek nahi izango du bertara joan eta erosi, hori besterik ez, baina esperientziak gero eta garrantzi handiagoa du kontsumitzaileendako. Sorpresa elementua ere landu behar da: zerbait berria eskaini, izan zerbitzua, izan atentzioa... Kontsumitzaileak atenditzeko unean atenditzeko erak eta ze informazio ematen den oso garrantzitsua da.

Komertzio txikia berdina da Donostian eta Gipuzkoako herri txiki baten?

Komertzioa berdina da: enpresa bat da eta kudeatu egin behar da, eta enpresa guztiak berdin kudeatu behar dira. Bezeroak, ordea, aldatu egiten dira. Donostian kompetentzia handiagoa dago eta horrek eragiten du merkataria gehiago mugitzea. Baina Donostian ere, ez du zerikusirik auzo baten edo beste baten izatea: auzo baten turismo handia egon daiteke eta zerbitzua emateko era desberdina izan behar da.

Merkataritza-gune handiak dira komertzio txikien arazo larriena?

Ez. Egia da oso lehia indartsua dela; han eskaintzen dituzten zerbitzuak oso erakargarriak dira kontsumitzaile mota batendako. Baina ez da ahaztu behar zentro horietan merkataria txikiak daudela eta bezero horiek eskatzen dituzten zerbitzuak ematen dituztela. Beraz, lehia handi gisa hartu behar ditugu, baina enpresa batek bere burua ondo kudeatu behar du, kudeaketa profesionala egin. Lehia handia dagoela kontuan hartu behar du, bai, baina beste edozein sektoretan bezala.

Gaur egungo bizimodua kontuan hartuta, komertzioen ordutegia, erraztasunak... egokiak dira?

Egokiak dira segun eta bezeroa ze motatakoa den. Saltzen den produktua zein den, denda non dagoen eta herri motaren arabera, zerbitzuak, ordutegia... aldatu egin beharko dira. Beti izan ditugun zerbitzu berbera, ordutegi berbera... badiugu gaur egun ere, zerbait ez gabiltza ondo egiten, bezeroak eskatzen duenari egokitu behar delako. Askotan ahazten da garrantzitsuena bezeroa dela, bezero bari- gu ez garela ezer, eta ez badiogu erantzuna ematen, ez da gure dendara etorriko. Erantzun hori izan daiteke produktuan, zerbitzuan, ordutegian, instalazioetan, ordaintzeko era askotan... Gauza asko daude eta bakoitzak bere bezeroa nolako den sakon aztertu behar du eta, horren arabera, estrategia bat egin.

Merkataria asko laster erretiratu-ko dira. Badago merkataria izan nahi duen jende gazte nahikoa?

Jendea badago, kontua da ea prestatuta dauden. Askotan, eta pena da, denda irekitzea irtenbide erraza izaten da, baina, beste sektore guztietan bezala, merkataritzan ere prestakuntza bat behar da, zer egiten gabiltzan jakin behar dugu. Orain, Bazkundek, Eusko Jaurlaritzarekin, garapen agentziekin... programa bat jarriko du martxan, prozesu horretan laguntza eskaintzeko eta, ahal den neurrian, dendak ez ixteko. Horretarako, kontaktuan jarri nahi ditugu doazenak eta sektorean sartu nahi dutenak.

"Merkatarien artean, talde bat ez da konturatu aldatu egin behar dela"

"Bakoitzak aztertu behar du ze bezero mota duen, eta erantzunak eman"

"Orain, merkataria- k bezeroaren bila joan behar du, eta bere dendara erakarri"

ZABALIK



RUFINA OLASAGASTI
goiena.net/komunitatea/

Euskara, munduko kultura?

Aste pare bat dela zer ikusi, zer entzun eta zer egin izan genuen Mundumirako egitarau zabalari esker, baina zein leku izan du euskarak eta euskal kulturak jaialdi honetan?

Munduko kulturen festa gisara eman da ezagutzera jaialdia. Igor Ezpeleta Mankomunitateko ordezkariak Goienako elkarrizketa batean hau kultura kutsuko jaia dela esateaz gain, azaldu du baita Debagoiena mundura zabaltzeko erakusleihoproposa dela eta beharrezkoa ikusten dutela bertako ekoizle, enpresa eta bestelakoen parte-hartzea handitzea.

Beste urte batzuetako balorazioetan bisitarien kopuru handia, turismoari ematen dion bultzada eta jaialdi kulturalen erreferente bihurtu izana aipatu izan dira.

"Erreferente kultural" horretan ez da azaltzen euskara eta euskal kulturaren sustapenik. Zein kultura da bultzatzen duena? Euskaldunon hizkuntza eta kultura indartzeko, munduari erakutsi eta gurean integratzen laguntzeko balio izan ote du edo alderantziz, geurea baztertu eta ahulduz erdal kulturekiko menpekotasuna handitu du?

Zein presentzia izan du euskarak? Kontzertu batzuk erdaraz bakarrik izan dira aurkeztuak, artisau eta gastronomi postu batzuetan bakarrik zegoen presente euskara...

Euskal hizkuntza eta kulturak erdarek baino laguntza baliabide gutxiago dituzte eta erdarak (gaztelania, frantsesa, ingelesa) nagusi direnez, geurek bultzada berezia behar dute ikusaraziko badira.

Mendeetan zehar jasandako jazarpenaren ondorioa da gaurko egoera eta justiziazkoa da honen aitortza eta erreparazioa egitea, kendutako prestigioa eta baliabideak itzuliz.

Gure hizkuntza erabili nahi dugu bizi garen inguruan. Aisialdia izan edo ez.

Eta hau lortzea Mankomunitateari ere badagokio.

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.com

Poza eman eta estresa kendu

Urtebete pasa egon naiz ezer gabe. Nahi baina ezinean. Hari esker lortzen nuen lasaitu ordainezin hura barik. Orain bueltatu egin naiz. Ahaztuta nituen dakartzan onura guztiak. Poza. Arintasuna. Estres kentzea... eta, gainera, kolore politagoa eta gorpuzkera arinagoa. Hori guztia, ahalegintxo txiki baten truke. Ez niri bakarrik. Edozeini ematen dizkio horiek guztiak. Gainera, dirurik ere ez da ordaindu behar. Eta lekua eta ordua, norberak aukeratzen ditu, nahieran. Aukerara, probatu eta ikusi. Badakizue zeren gainean nabilen berbetan, ezta? Bai ba. Euskal Herriko pailazo ezagun batzuek kantatzen duten moduan: *Oe, oe, oe, oe kirola!*

KALE INKESTA



ADRIAN DEL POZO
ARRASATE

"Ez dut botikarik hartzen, normalean minari eusten diot. Oso larri nagoenean soilik hartzen ditut, eta medikuak bidalitakoa baino ez dut hartzen".



LOURDES JAUREGIALZO
ARRASATE

"Medikuak bidaltzen didana hartzen dut, eta horiek hartzea sahiestu badaiteke hobe. Mina oso gogorra ez bada, ez dut ezer hartzen".



ZORIONE TXINTXURRETA
ARRASATE

"Beharrezkoak direlako hartzen ditut botikak, baina beti medikuak bialduta. Mina ezaguna bada badakit zer hartu, medikura joan gabe".



GREGORIA MARTIN
ARRASATE

"Egunean hiru pilula hartu behar ditut, gaixotasun desberdinak ditudalako. Hala ere, medikuak esan gabe ez dut botikarik hartzen".

HANDIK ETA HEMENDIK

Amua

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Stevensonen liburu ezagunena, *Altxorraren uhartea*, altxor bat da, uharte galdu batean baino galduago eta bakartiago gozatzen den altxor sekulakoa.

Uharte identifikagarria da milioika libururen itsasoaren erdian; altxor distiratsua da, urteak joan urteak etorri irakurri dugun zirtzileria gehienarekin alderatuta.

Andrew Motion idazleak argitaratu berri du *Itzulera altxorraren uhartera* izeneko liburu bat.

Ez da hain harrigarria ere liburu ezagun baten abaroan beste bati ekitea: James Joycek *Ulisses* idatzi zuen; Thomas Mannek *Fausto*.

Ez batak ez besteak zeukaten erreferentzia gainditzeko asmorik, beste liburu bat egitekoa baizik.

Motionek ere gauza bertsua lortu nahiko zuen, baina ez dut uste pozik egongo denik gaztelerazko itzulpenak azalean daraman atun-zorrientzako propaganda-amu gorriarekin: "Orijinala gainditzen du".

Egingo nuke halako amu bat otu zaion melokotoiak

Askatasunaz

Eneko Barberena
blogak.goiena.net/barberenea/

Askatasun berbak beti ekarri izan dizkit arazoak.

Horrenbeste erpin dituen berba izanik, laiotz bezain egutera, berau modu arinean erabiltzen dutenek harridura sortu izan didate.

Akaso nerabegarotik datorkit kezka, 14 urteko gaztetxo batengan Dut taldearen "At" diskak utzitako arrasto sakonetik.

Badakizue, borroka hipsterrak gara behe laino artean eta "Haize eza" kantako letra nihilistak arrakala sakonak utzi zituen batzuongan.

"Harroegi ulertzeko, harroegi onartzeko, askatasun desiratuak ez gaituela askatuko".

Sinboloen semantika tristea bularrean generamanontzat eskuin crochet gupidagabea.

Trapuzko hankak utzi zizkidan betiko kanta hark, arrazoien bat onartzen nionaren seinale.

Eta trapuzko hanka horiek arrastaka eramateak ez dit ekidin niri ere berbak arinki erabiltzeak, propaganda eta kontsigna politikoen alderik ahulena baita hori.

"Nork ez du maite askatasuna nahiz leher egin esku artean".

Buelta gehiegi ematen dizkiet oroimen monolitoetako esaldiei, hain zaizkit bortxazko...

Hori guztia azken hilabeteotan "erabakitzeko eskubidea" kontzeptua erabiltzearen poderioz sorturiko gogoeta da.

"Askatasunak" asko baitu luzetik eta kia, sinesgaitz naiz askatasun luzeekiko.

Iruditzen zait askatasuna instant bateko kontua dela, erabakia hartu behar denean loturarik ez izatea.

Behin hori pasatzean Sestaoko alkate xenofoboek hor segiko dute, emazteak jipoitzen dituzten senarrek eta gure eguneroko gainontzeko mixeria txikiek.

Baina kia, erabaki ahal badugu zer izan nahi dugun, zer izan ahal dugun, egunerokoaren zama apur bat arindu ahal digu soilik gure menpe egoteak.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Xabier Urtzelai

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berria@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñati Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

HERRIAK

BERGARA

Errekalde jauregian ireki dute turismo bulego berria

- Eraikinak museoa hartuko duenez, turismo bulegoa ere bertan jarri dute
- Lekualdaketari esker, jendeak jauregia eta lorategia ere ezagutuko ditu

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergara ustekabez betetako herria da; kooperatibismoaren eta industriaren bailaran, herriko Gerriko Berdea, Europako Ilustrazioaren topagune izan zen Errege Mintegia, dorretxeak, jauregiak, lorategiak, elizak... Turismoari bultzada berri bat emateko asmoarekin, bulego berria Errekalde jauregian bertan ireki dute, "toki erakargarriago batean dago orain", azaldu du David Zapirain Udaleko turismo teknikariak.

Herriak bisitari ugari jasotzen dituen arren, jende berria erakarri nahi du, "Imersoko zirkuituan ez ezik, agentzia batzuen ibilbideen parte izan nahi dugu", azpimarratu du Zapirainek.

San Pedroko bisitak

Parrokia berri eta gero, Turismo Bulegoak martxan jarri zituen San Pedro eliza ezagutzeko bisita gidatuak. Hauek izandako erantzun onaren ostean, bertako abadeak eta Udalak, bisita hauek berreskuratzeko akordioa sinatu dute. Gauzak honela, Turismo Bulegoak Bergararen sorreran horren besteko garrantzia izan zuen parrokiaren sekretuak azalduko dizkie bisitariei.



Bisitari bat Errekalde jauregian dagoen turismo bulego berrian azalpenak jasotzen. | IMANOL GALLEGO

Bergara hiribildua XIII. mendean sortu zen, Ariznoako San Pedro parrokia dagoen lekua inguruan. Gaur egungo tenplua beste eliza zaharrago baten zimenduen gainean eraiki zuten; obrak zeharo garatzeko lau obra-ekinaldi behar izan zituzten, XV.

mendearen azken hamarkadetan hasi eta 1620. urtera arte. Dorre barrokoa, Jose Lizardi arkitektoak egin zuen; eta zalantzarik gabe, egin zituen lanetatik onenetarikoa da. Aipagarria da, era berean, eliza barruan dagoen organo erromantiko bikaina, 1889an Stoltz Frères etxeak egindakoa.

Turismo bulegotik azaldu dute, bisita gidatu bat egiteko komenigarria dela aldeztuz aurretik, hitzordua hartzea. Hala ere, hitzordurik gabe, bulegoan bertan bakoitzak bere kabuz bisita egiteko plana jaso dezake. Eskuorrian gainera, herria ezagutzeko beste ibilbide batzuk ere ageri dira.

Egonaldia luzatzea

Jendeak egun erdiko bisita egiten du, "gure kokalekuagatik erraza da hemen egon eta gero, Oñati edo hiriburuak bisitatzea, hondartza ere oso gertu dugu", argitu du turismo teknikariak.

Herriko merkatariek ere bisitarien joan etorria igartzen duten arren, turismo arduradunen hurrengo erronka egonaldia luzatzea datza, "ordu batzuk igaro beharrean, bisitariak Bergara aste bukaera osoko bisita bat bezala har dezatela nahi dugu" dio Zapirainek.

Plan hau garatzen hasi diren arren, behin betiko museoa erabat bukatua egon arte, ez da guztiz gauzatuko. Proiektu hori gauzatu arte, herriak berak duen ondarea, aberastasuna eta jendea bada aurkikuntza nahikoa.

Kanpotik Bergarako ondare eta aberastasuna ezagutzera

Bergarak beti jaso izan ditu bisitari ugari, bere ondarea, kokaleku estrategikoa, autokarabana gunea... herriak, bisitariak erakartzeko dituen arrazoi zerrenda luzea da, baina dudarik gabe Turismo Bulegoak egindako lanari esker, herria eta bere ingurua ezagutzeko asmoarekin etortzen diren zerrenda dezente luzatu da.

Duela pare bat hilabete Madrilgo agentzia batekin lortutako akordioari esker, eguenero, bisitariz betetako pare bat autobus gerturatzen dira herriko aberastasun eta aisialdi eskaintza ezezaguna ezagutzera.



Bisitariak San Martin plaza ezagutzen. | IMANOL GALLEGO

JUANJE AMASORRAIN | TURISMO ZINEGOTZIA

"Herriko museo eta turismo bulegoko baliabideak elkartzea da helburua"

Zergatik leku aldaketak hori?

Hasieratik argi izan dugu Turismo Bulegoa eta Museoa batera egon behar zirela, horregatik batu ditugu bi zerbitzuak Errekalde jauregian.

Honek abantaila ekonomikoak ere izango ditu.

Bi zerbitzuak eraikin berean txertatzean, bi zerbitzuen baliabide eta erakarpen indarrak elkartu nahi ditugu. Horrek, zerbitzuan aurrezpen bat ekarriko du.



IMANOL GALLEGO

Lekualdaketak Errekalde ezagutzeko ere balio du.

Dudarik gabe. Herriar asko ez dute toki hau ezagutzen, eta jauregia ikusgarria izateaz gain, bertako lorategia ere oso garrantzitsua da. Bulego berriarekin jendeak txoko hau

ezagutzea nahi dugu.

Noiz irekiko duzue bulego berria?

Dagoeneko irekita dago ohiko ordutegian, baina oraindik, seinalatika berria jartzea falta da.

BEGOÑA RUIZ BISITARI GIDA



"Bergara ikusgarria da. Oso ezezaguna den herri bat denez, bisitariak sorpresaz hartzen dute bertako ondarea, gainera guztia oso gertu dago".

MARIA JOSE LUCAS BISITARIA



"Erkidegoko hainbat txoko ezagutu arren, Bergara ez nuen ezagutzen. Oso jende atsegina bizi da hemen, eta bisitak merezi duela uste dut".

FELIX SAN VICENTE BISITARIA



"Herri ederra da. Duela urte mordo Bilbao izan nintzen baina Gipuzkoa ez nuen ezagutzen. Ondarea oso ongi zainduta dagoela uste dut".



Errekortadorea zezenari uztai sartzeko ahaleginetan. | JOSETXO ARANTZABAL



Iker Agirre Txili zezenarengandik ihesi. | JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

Behi suharraren egunean, behi bizkorrak eta erakustaldi politikak

Euskadiko ganaduzaleek eta errekortadoreek antolatu zuten jaialdia, egun osoko egitarauarekin

ANE ELORDI | BERGARA

Bergaran egin zuten atzo Euskadiko Behi Suharren lehenengo eguna. Askotariko ekintzak antolatu zituzten ganaduzaleek, eta

ikuskizun polita sortu zuten. Hamaiketan ekin zioten egunari, 16 errekortarik hartu zuten parte uztai lehiaketan. Paleta behia izan zen lehena plazara irteten.

Behiak bizkorrak ziren, bikoteka aritu ziren, hiru minutuko saioak egin zituzten errekortariak, eta, gehienez, uztai bakarra jartzea lortu zuten.

Sustoa behiak ihesi egindakoan

Pare bat ezusteko izan ziren zezen plazan. Errekortarien saioan, Santa izeneko behia indartsu atera zen plazara, eta ate nagusia

zabaltzea lortu zuen buruarekin kolpea jota. Hala ere, ez zen ezbeharririk izan.

Ondoren, zezentxoak eta bigantxak irten ziren plazara, publiko zein parte hartzaileentzat. Zezentxoetako bati jauzi egin zion errekortarietako batek, eta zezenak ondoren airean salto egin zuen. Jausterakoan, zezen plazako ate nagusia ireki zuen, eta bertan zegoen DYAKO langile bat jo zuen, larri zauritu gabe. Behia plazatik irten zen, baina kanpoaldean ganaduzaleek prest zuten zezen plaza txikian harrapatu zuten.



IMANOL ETA FERNANDO
ERREKORTADOREAK

"Behia oso ona izan da. Ez dugu uztairik sartzeko aukerarik izan, baina ondo pasa dugu. Inoiz ez da jakiten nork irabaziko duen, ez ditugulako behiak ezagutzen".



IÑIGO ALMORTZA
ANTOLATZAILEA

"Behi handiak eta serioak dira, eta tentsio momentuak bizi dira. Horrelakoetan umorea ere garrantzitsua da, errekortariak eta giroa lasaitzen laguntzen du".



ELI GARITANO
IKUSLEA

"Ez daukagu mota horretako ikuskizunetara joateko ohiturarik. Baina herrian denez, zezen plazara hurbildu gara, ea nolako giroa dagoen ikusteko".



IKER AGIRRE "TXILI"
ERREKORTARIA

"Ganadutegi bakoitzak bere behi onenak ekartzen ditu eta gogor saiatzen gara espektakulo polita izan dadin. Gure artean laguntzea ere oso garrantzitsua da".



XABI ITURRATE
IKUSLEA

"Gustuko ditut horrelako saioak eta ohitura daukat joateko. Behiak handiak izan dira, eta errekortariak fin ari dira. Ikuskizun polita izan da uztai txapelketakoa".

ARRASATE

Ikastolako jaian, Argitxo eta haurrak protagonista

ANE ELORDI | ARRASATE

Arizmendi ikastolakoak jai giroan murgildu ziren zapatuan. Ikasle, guraso, langile eta ikastola osatzen duten norbanakoak elkartu ziren Arrasateko Bite-

ri etorbidean. Argitxo ere bertan izan zen, egun polita igaro zuten gerturatutakoek.

Askotariko ekintzak izan ziren: herri kirolak, musika eta dantza emanaldiak, eta abar.



Gazteak eta Argitxo ikastolako jaian. | SERGIO AZKARATE

ELGETA ETA ESKORIATZA

Luis Ezeizan 'flashmoba', eta hondartza Elgetan

ANE ELORDI | ARRASATE

Ikasturte bukaeraren atarian, ohikoa da eskoletan jaialdiak egitea. Asteburuan hainbat izan dira Debagoieneko herrietan, Eskoriatzako Luis Ezeizan zapa-

tuan egin zuten jaialdia eta Elgetako gazteak egubakoitz arratsaldean ikuskizuna egin zuten.

Luis Ezeizako ikasleek askotariko ekintzak egin zituzten egun osoan zehar, baina *flash-*

moba izan zen eguneko ekitaldi nagusia, kantuan eta dantzari aritu ziren gazteak.

Bestalde, Elgetako herri eskolakoek hondartza irudikatu zuten Espaloia Kafe Antzokian. Uda giroan murgildu ziren doinu dantzagarriekin. Ekitaldi berean seigarren mailako ikasleen agurra ere egin zuten, bosgarren mailakoek bi abesti eskaini zituztela txirularekin.



Luis Ezeizako ikasleak *flashmoba* egiten. | IMANOL SORIANO



Elgetako ikasleen jaialdia. | LARRAIZ ZEBERIO

ARRASATE

Danbor hotsekin iragarri dituzte San Juan jaiak Arrasateko haur eta gazteek, herriko kaleetan

Sukaldari, danbor jole, kantinera eta zaldi gainean atera ziren 200 haur inguru Danborradan, zapatuan



Danborradako partaide guztiak Herriko plazan. | IMANOL SORIANO

ANE ELORDI | ARRASATE

Egun berezia izan zen zapatua haurrentzako. Zenbait astez entseguak egin ondoren, egun handia iritsita, kalera irten ziren danborra jotzera. Ospitale ingurutik hasi zen danborrada 19:00etan. Arrasateko kaleak jendez beteta zeuden, asko etxeko txikienak ikusteko irrikaz.

Herriko zenbait kale zeharkatu ostean, Herriko plazara

iritsi ziren 20:00ak aldera, bertan danborradako abesti guztiak joz bukatu zuten ekitaldia.

Karroza berria

Aurtengoan, danborradako karrozak itxura berria izan du. Erdian masta bat, eta horren puntan dragoi baten irudia. Bertan 48 haur joan ziren, gozokiak jaurti eta danborrada ikustera hurbildu zirenak agurtu zituzten.



Neskak danborra jotzen kaleetan zehar. | IMANOL SORIANO



Gaztetxoek danborradaren buruan. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Ehunka haur eta gazte bildu ziren, dantza aitzaki hartuta

ANE ELORDI | ARRASATE

Jaiak datozela eta, ohitura den bezala, Arrasateko Lore Gazteak euskal dantzari taldeak Haur Dantzarien Eguna antolatu zuen atzo. Debagoieneko dantzarien ordezkapen zabala izan zuen jaialdia: Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz, Ara-

maiokoa, Antzuolakoa, Oñatikoa eta Aretxabaletakoa. Durango, Iruñea eta Oihartzundik etorritako dantzariak ere baziren.

Egun osoko jaialdia izan zen: goizean kalejiran ibili ziren eta arratsaldean ekitaldi nagusia egin zuten. Eguraldia lagun, giro polita sortu zen herrian.

Kalera jauzia

Haur Dantzarien Eguna data garrantzitsua da herriko dantzari txikientzat Urte osoan zehar ikasitakoa, kalean erakusteko aukera izaten dute. Dantzak ikasten emandako denborak eta esfortzuak bere fruitua eman duela erakusteko ordua izaten da.



Haur Dantzarien Eguneko goizeko kalejira. | SERGIO AZKARATE

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.

ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batzilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es

ESKORIATZA

Zapore mexikar gozoarekin borobildu dute 14. Aste Zapatista

Marilu Maldonadok gertatu die bazkaria eta Rosa Sanchezek girotu

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

"Jende ezberdina elkartu gara, handik eta hemendik etorritakoak, horien artean, Bilbotik, Murtziatik eta beste hainbat lekutatik, eta oso interesgarria izan da eguna. Oso gustura bazkaldu dugu, eta ederto pasatu, eta gustura egonez gero lortuko dugu beste mundu bat eraikitzea", zioen zapatu iluntzean, nekatuta baina pozik, Eskoriatzako Aste Zapatistaren antolatzaile taldeko kide den Yurre Romaratezabalak.

Zapatuko jaiak borobildu zuen 14. Aste Zapatista, eta eguraldia lagun goizean goizetik izan zen jai giroa plaza inguruan.

Mexikoko Michoacan eskualdekoa den Marilu Maldonado sukaldariak gertatu zien bazkaria. Menu goxoa gertatu ere: lehenengo: barazki parrillada artoarekin, guakamolea eta arrain *sebitxea*; ondoren: oilasko takoak pikan-tearekin, barazki eta txerri okeladun takoak gaztarekin eta okela pikatua txanpinoekin; eta

bukatzeko: jamaikako ura eta lapikoko kafea galletekin. "Guztiak Mexiko bertako produktuak dira, garrantzi handia ematen diot horri, eta produktu onak lortzen saiatzen naiz", zioen sukaldariak. Hala, bapo bazkaldu zuten Kontzejupean elkartutako 80 bat lagunek. Bazkalordua girotzeko, gainera, Rosa Sanchez abeslaria izan zuten lagun; ahots goxo, baina era berean, indartsuarekin Mexikoko doinuak ekarri zizkien gogora. Eta ondoren Donostiatik

etorritako monologistarekin barre egiteko tarte izan zuten elkartutakoek.

Arratsalde partean Luis Ezeiza herri eskolako neska-mutikoez bat egin zuten mexikar giroko festarekin, eta plaza dantzez eta jolasez bete zen. Izan ere, bertan egin zuten herri eskolako kideek *flashmoba*.

Eta gau partea kontzertuek girotu zuten. Logroñotik etorritako Perro Lobo rap kantariak hasi zuen ekitaldia, eta ondoren

Bartzelonako Jinko Vilova taldeak doinu sikodelikoekin girotu –tarte zen Lander Besa eskoriatzarra–. Eta jaiari bukaera Donostiatik etorritako Revolutionary Brothers taldeak eman zion.

Haziak landatuta, fruituen zain Komunitate zapatistak ezagutera eman eta horiei lagun egitea helburu duen astea 14. aldiz antolatu dute, eta aurreko urteetan legez oraingoan ere aste guztian izan dira ekintzak: "Zapatistek diote: poliki baina bagoaz, eta hemen ere poliki-poliki baina aldatuko ditugu kontuak; borroka ez da eta egun batetik bestera egiten", zioen Yurrek, eta gaineratu: "Hazia landatzen gabiltza urtero-urtero, eta fruituak etorriko dira. Dagoeneko taldetxo bat osatu dugu, eta lanean dihardugu sakrifizioarekin. Izan ere, hauxe da gure ametsa: beste mundu bat lortzea".



Perro Lobo rap kantaria plazako oholztan. | IMANOL SORIANO



Aste Zapatistaren antolatzaileetako batzuk eta lagunak jai giroan sartuta. | IMANOL SORIANO

ELGETA

Gisaturik goxoen erretiratuek egin dute Kuadrillen Egunean

M.A. | ELGETA

"Okela ondo pasatu behar da zartaginean lehenengo, eta poliki-poliki egin gero", zioten erretiratuek saria jaso aurretik eta gaineratu: "Eta saltsa egiteko tipula, berakatza, azenarioa eta piperren bat edo beste gehitu". Baita asmatu ere errezetarekin, izan ere, erretiratuek jaso zuten gisatu lehiaketako lehen saria. Zaporea eta itxura baloratu

zituzten epaimahaiko kideek, herriko hiru tabernatako sukaldariak, eta erretiratuen atzetik geratu ziren: Iñigo eta Beatriz; Faka Faka; 90210 kuadrilla; eta Fly kuadrilla.

Kuadrillen Egunean hasiera eman zion lehiaketak, eta ondoren, gertatutako hori bazkaldu zuten bost kuadrillek; gehienek plazan, 60 bat lagunek, eta erretiratuek Ozkarbi elkartearen.



Oxel Erostarbe alkatea saria ematen erretiratuei. | IMANOL SORIANO

ELGETA

Auto klasikoek ikusmina sortu dute: "Antzinakoak eta kabrioletak bai politak"

30en bat ibilgailu klasiko elkartu ziren atzo goizean, Elgetako plazan

M.A. | ELGETA

Ikusmin handia sortu zuten ibilgailu klasikoek atzo Elgetan, ikusmina, harridura eta inbidia ere bai. 30en bat auto elkartu ziren plazan, eta elgetarrek bertatik bertara ikusi zituzten, eta batzuek ukitu ere bai. "Ikusgarrienak ibilgailurik zaharrenak dira", zioten batzuek; beste batzuen dako, oster, politenak kabriolet edo deskapoteak. "Hummerra bai dela txundigarria", esan eta barrutik eta kanpotik hari begira ere egon ziren hainbat. Hummerraz gain, Ford 1929, Renault 1931, Mercedes 1958, Sinca, Hotchkiss eta beste hainbat izan zituzten aukeran plazara hurreratutakoak. "Ibilgailu txiki honetan kabituko ote da gidaria?", galdetu zuten hainbatek.

Eguerdiko parteko ibilalditxori ez da izan azkenean, autoak plazatik ez ateratzeko. Gidariak bazkaltzeko elkartu dira.



Hainbat elgetar autoari begira-begira. | JOSETXO ARANTZABAL



Plaza ibilgailuz eta herritarrez beteta, atzo goizean. | JOSETXO ARANTZABAL

Egitarau zabala EPAn ikasturtearekin bukatzeko

Ekainaren 20an amaituko da ikasturtea ofizialki; aurten 670 ikasle egon dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Amaitzera doa Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI/EPA) ikasturtea; egubakoitzean, hilak 20, amaituko da. Aurtengoa hirugarren ikasturtea da Arrasate pasealekuko egoitza berrian egin dutena eta Miren Bengoa zuzendariaren arabera, Ferreriasen baino "askoz hobe" daude bertan: "Egokiagoa izateaz gain, herrira zabaldu eta gerturatzeko aukera eman digu egoitza berriak".

2013-2014 ikasturtean 670 ikasle aritu dira eta datorren urtera begira, murrizketak izango dituzte: "Hala ere, saiaturko gara ahalik eta eskaintzarik zabalena ematen", dio Bengoak. Datorren ikasturterako matrikulazio epeak bitan banatu dituzte: batetik, gaurtik hilaren 30era eta, bestetik, irailaren 1etik 15era.

Kultura Astea, ekintzez lepo
Aste osoan zehar erakusketako bat egongo da eskolako gela nagusian. Izenburua da *Holokaustoa: pentsa ezazue hori benetan gertatu dela*. 16 panel informatibo jarriko dituzte, besteak beste. Kultura Astearekin hasteko, Mariasun Pagoaga Doke antzerki taldeko aktore arrasatearrak hitzaldia eskainiko du gaur eskolako liburutegian (09:30).
Bihar holokaustoa berbagai izango duen bisita gidatua egingo dute erakusketatik, euskaraz



EPAn ikasleekin egindako irteeretako bat. | EPA-HHI ARRASATE

(09:30). Ikuspegi ez-arrazista batetik abiatuta, memoria landu gura dute iraganetik ikasteko. Helburua da gizarteak bazterkeria forma berriak hartzen duen egoera berri eta aldi berean antzekoak ikusi, identifikatu eta saihesten jakitea.

Era berean, bihar, hilak 17, Trukeados programa aurkeztuko dute (11:00); gazteleraz izango da. Finean, Trukeados ekimenaren helburua da trukea sustatzea: "Partaideen artean ados jartzea eta zerbitzuak zerbitzuengatik trukatzeko gura dugu".

Eguenean, hilak 19, Karnele Jaio idazlearen bisita izango dute EPAn. Musika airean liburuaren gainean solasaldia izango dute, eskolako liburutegian

(18:00). Programarekin amaitzeko, egubakoitzean, hilak 20, Oihulari Klown taldeko Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *Berba Kateatuak* kontakizuna eskainiko die bertaratzen direnei: "Aukera paregabea egongo da disfrutatzeko", adierazi dute antolatzaileek.

Kultura Astearen helburua da ikasturte akademikoaren barruan dagoen ikasleei aukera ematea ekintza kulturala parte har dezaten. Ikasleek izango dute lehentasuna baina ateak zabalik egongo dira ekintzaren batera joan gura duten herritarrendako: "Gura duten herritar guztiak gonbidatuta daude eskolara hurbildu eta programaren berri jasotzera".

NIRE USTEZ

ENEKO BARBERENA



Felipe VI. Dei Gratia

Maltzagatik bueltan, Telesforo Monzonek eguzkiaren gupidagabetasuna islatzen du azalean. Giza katea ondo irten izanaren pozaz, zigarpunta pasa dio alboan oinez duen Karlos Mahomari, Eibar lehen maila igotzearen mirariak dihardute eta erdibana akzio bat erosteaz. Ez da bien presentziaz ohartu Juan Luis Bilbao, *Batxi*, zeinak mundu arranoen berri ematen duen blog arrakastatsuan.

Hirukotea baino aurrerago oinez doan Teresa Garciak behingoan adarra jo ahal izan dio gehienetan bihurri eta jostari den Txomin Iturberi, moztu dezala bibotea atoa, orain

mototsa dela modan dagoena politikan. Gizonak purrustada egin dio, "denboraz ikusiko jonau olatuan zer dan aparra ta zer ure" emakumeak irribarre egiten duen bitartean.

Juanito Saizar gidaria zain dute autobus kanpoan, ostean denak Bergarako ekitaldira eraman behar ditu-eta. Koldo Izagirre esperoan da busaren lehen jarlekuan, marmarti, bere buruari esanaz "bide bazter hau ez da hiria ez ezer" eta parean mikroa harturik Xabier Saldia-sek Latzenen *Laztana* abesten du tirolar estiloan.

Eta iruditzen zait kontakizun hau dela errealagoa, kabalagoa, bigarren trantsizio honekin egin nahi diguten *tokomotxo*a egiten uztea baino. Kakazahararren bertsio berritua, Kakazaharra 2.0 besterik ez baita.

"Trantsizio hau, kakazahararren bertsio berritua"

Lanak hiru zubitan, herritarrak ez labaintzeko

Eroskikoan, Zerrajerakoan eta Munarrekoan aritu dira lanean; gaur ezker hiruak irekiko dituzte

J.B. | ARRASATE

Eroskiko, Zerrajerako eta Munar auzoko egurrezko zubietan lanean aritu dira azken eguntan Hernani Murua S.L. enpresako langileak. Hiru zubiak egurrezkoak dira eta denboraren poderioz irristakor jarri direnez, herritarrak ez labaintzeko likido batekin estali dituzte. Munarreko zubian ari ziren langileen arabera, dena ondo

badoa gaur ezker hiru zubiak erabilgarri egongo dira herritarrendako.

Hainbat eroriko azkenaldian

Joan den astean hasi ziren material ez labaingarria botatzeko lanekin; aurrerantzean seguruagoa izango da zubiotatik igarotzea. Izan ere, azken hila-beteotan hainbat eroriko eman dira euria egin izan duenean.



Murua S.L. enpresako langile bat Munarreko zubian lanean. | JOKIN BEREZIARTUA

Kontserbak egiteko tailerra egingo dute zapatuan Seber Altube plazan, hileroko baserritarren azokan

Zapatuan, hilak 21, baserritarren azoka egingo da Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Arrasateko, bailarako zein Euskal Herriko produktu ekologikoak saltzeko ohiko postuez gain, ekaineko azokan kontserbak egiteko tailerra egingo dute. Teoria saio bat egingo dute eta ondoren ikasitakoa praktikan jartzeko aukera egongo da. Udalak jakinarazi du komeni dela izena aurrez ematea. Izena eman daiteke BAZen edo Udalaren webguneko (www.arrasate-mondragon.org/eu) izen-emate fitxa beteta.

ERRETRATU ZAHARRA



Garai bateko sanjuanak

Argazkiaren jabea: Isabel Telleria; **Itziar Etxebarriaren bidez** jasoa. **Urtea:** 1963.

1963ko sanjuanetan Herriko plazan dago aterata goiko erretratua, Herriko plazan jaietarako jartzen zen oholtzaren aurrean. Goian, ezkerretik hasita: Jose Ignacio Sainz, Jose Luis Isasa, Josemari Usatorre, Elena Olmedo, Itziar Etxebarria, Iñaki Etxebarria, Jose Manuel Beitia, Josemari Markaide, Arantza Arana, Loli Sagasta, Pili Sagasta, Angelita Trojaola, Lourdes Trojaola, Marisol Usatorre, bere atzean Maria Jesus Mendikute, Isabel Telleria eta Arantza Zulueta. (Etxebarriak neskatoa eta gizona ez ditu ezagutzen). Makurtuta, ezkerretik eskuinera: Agustin Maidagan, Iñaki Arriola, ezezaguna, Errarte birkiak (Julian eta Bittor), Jaione Zubizarreta, Mertxe Sainz, Petri Leibar, Espe Sainz, Maite Isasa eta Maite Usatorre.

'Aupa Mondra' liburua eta DVD-a aurkeztuta, salgai dago hiru tabernetan

Lanaren 700 ale jarri dituzte salgai eta Itzala, Kajoi eta Monte tabernetan eskura daiteke, agortu arte

I. GOITIA / J. BEREZIBAR | ARRASATE

Mondraren 100 urteko historia batzen duen liburua aurkeztu zuten egunean. *Aupa Mondra!* da liburuaren titulua, eta 100 urteko argazkiak eta istorioak batzen ditu. John Andueza eta Marian Porcel dira egileak.

Aretoa bete egin zen ekitaldirako. Besteak beste, bertan izan ziren garai bateko eta egungo jokalaria. Ekitaldi xumea izan zen eta hitza hartu zuten Fernando Laspiur antolatzaileak berak, Inazio Azkarragaurizar alkateak eta John Andueza liburuaren egileetako batek. Argazkiak eta istorioak betetako liburua da.

Polita eta dibertigarria

"Liburu arina" dela dio egileak, "polita eta dibertigarria eta antzinako kontu asko" jasotzen dituen. Anduezak azaldu zuen urteurrena ospatzeko egin zen erakusketatik jaso dituztela argazki asko. Eta beraz, "lan asko eginda" zegoela. John Andueza eta haren emazte Marian Porcel izan dira liburuaren egileak, baina Anduezak esan du jende asko dagoela atzetik. Anduezak gaineratu zuen zaila dela 100 urteko historia liburu bakarrean laburbiltzea eta horregatik istorio dibertigarri edo garrantzitsuenak jasotzen saiatu direla.

Salgai hainbat lekutan

Liburua eta DVDa 20 eurotan egongo da salgai. Izan ere, Oihan Vitoriak eta Jokin Uribeberriak



Egueneko aurkezpen ekitaldeko une bat. | IRATI GOITIA

iaz egin zuten dokumentala liburu barruan doa. Zapatuan egin zen Ardo Egunean egon zen lana erosteko aukera lehenik eta behin. Aurrerantzean Itzala, Kajoi eta Monte tabernetan ere egongo da salgai. Lehen edizioarako 700 ale atera dituzte. Hain zuzen, salmentaren helburua da Mondra futbol taldearendako diru-iturri izatea.

Liburuaren aurkezpenarekin amaitutzat eman dituzte mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldiak.

Enplegu eta soldata publikoak defendatzeko eskatu du ELAk

J.B. | ARRASATE

Erakunde publikoen aurrean elkarretaratzeak egiten ibili da joandako astean ELA sindikatua negoziazio kolektiboa bultzatu eta instituzioei enplegu eta soldata publikoak defendatzeko. Tartean Arrasateko Udalari ere luzatu diote eskaera udalerririk udalerririk galdutako enplegu publikoa berreskuratzeko eskatzeko.

"Suntsiketa" gera dadila

Sindikatu abertzaleak salatzen du "asko murriztu edo kendu" direla zerbitzu publikoak eta datu zehatzetan 3.000 postu

"suntsitu" direla udal eta foru administrazioetan. ELAk dio milintanteak ez direla geldi egon eta borroka egin dutela salatzen dituzten politika horien aurka esparru askotan. Udaletxe eta Foru Aldundietako langileek mobilizatzen jarraitu beharra dutela diote eta hiru dira eskaerak: udalerrietan enplegu publikoa sortzea, aitzaten dituzten 3.000 lanpostuak berreskuratu arte; langileen eroste-ahalmena itzul dadila, KPI-a erreferentziatuz hartuz soldatak igota eta, baina ere, berreskura dadila negoziazio publikoa.



lazko bazkaltiar talde bat. | GOIENA

Jai-bazkarietarako epea, eguenera arte

'Zeuk iñ zeuk jan' eta 80 urtetik gorako bazkarietarako izenematea 19an itxiko da

J.B. | ARRASATE

2012an ekin zioten *Zeuk iñ zeuk jan* egitasmoa zuztatu da jada. Udalak izenematea aurrez egin dadila eskatu du behar diren leku, su, mahai eta aulkiak ondo kalkulatzeko. Izena emateko epea oraingo egunean amaituko da, hilaren 19an. Eguenean bertan ere nahi duenak parte hartu ahal izango du herri-bazkarian baina suak erabiltzeko lehentasuna aurrez lekua hartua dutenek izango dutela jakinarazi dute Udaletik. Oharren artean, gogorazten dute

erabiltzen diren edalontzi eta mahai-tresnek berrerabilgarriak izan behar dutela eta hondakinak modu selektiboan batu batuko direla egun horretan. Bazkaria 14:30ean izango da Arano eta Gartzia maisu-maistrak kalean.

80 urtetik gorakoak

Sanjuenetako bazkarietara jarraituta, 80 urtetik gorako bazkari eta omenaldirako izena emateko epea ere eguenena amaituko da. Bietan, BAZ-en eman behar da izena.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

Udaletxeko obriek herriko ardozalien konture, neurri baten

XVIII. mendeko bigarren erdialdian konstruidu euen udaletxie. Martin Karrera arkitekto beasaindarrak zuzendute hasi zien lanak, 1756xen, eta hamar urte gerueu buketu.

Galarrako harrobittik ekarri euen harrixek, eta armarrixe eta moldurak egitteko Agurain aldera jo euen material bille. Armarrixe arkitektuen semiek landu euen, Manuel Martinek. Balkoiek eta beste burdin-lan batzuk, barriz, Rafael Amezola elorrixotarrak egin zittuen.

Herrixe zorpeien geratu zan, eta haxe gastu ikeragarrixek kubriduteko, inpuesto berezi bat jarteko eskubidie lortu euen Kontsejuek: hamar urtez ardo-azunbriei lau marabedi gehixeu jartie.

Hortan, esan leike herriko ardozalie pagau euela, neurri baten, obrak.

Plaza erdiko kioskue, barriz, 1911tik 1953ko ekaifien 8ra arte egon zan.

Udie aillegau, eta ziklistak karreteretara

Zikloturismue modan jarri zan 80ko hamarkadan. Mondrauen, 1980 inguruen fundau euen Deba Garaiko Zikloturisten Elkarte. 100 bazkide zien, danak gizonezkuak, eta 30 urtetik gorakuek.

Elkartekuek domekero egitten zittuen urteerak, martxotik iraillera arte: denporaldi hasieran 40 kilometro ingurukuek eta ekaifien eta uztailien, barriz, 120 kilometrokuek.

Gipuzkoan egitten zien probetan be ibiltten zien; ez euen irebazlerik, eta danei emuten eutzien premixoren bat. Gaiñera, urtien behin, umiendako ekitaldixek organizetan zittuen.





Imanol Epelde. | ARGAZKI PRESS

Imanol Epelde | '27 zapata': 'Etxepare Rap'-en sortzailea

"Testu hutsa ez den edozeri harrera ona egiten diote gazteek, eskertzen dute"

Euskal literatura rap doinuen bitartez irakasten aitzindaria da; orain oholta gainean ere badabil

ANE ELORDI | BERGARA

Euskara irakaslea da Imanol Epelde zarauztarra, eta sortzailea ere bai. Afizioa ditu musika eta, bereziki, rapa; bere azken proiektua da *Etxepare rap*: euskal literatura eta rapa uztartzen dituen ikusizuna. Literatura testu, musika eta ikus-entzunezkoen osatutako emanaldiak egiten ditu. Bihar, Bergarako kartzela zaharrean izango da, 19:00etan, Zibergara taldearen eskutik.

Nola sortu zen euskal literatura eta rapa uztartzeko ideia?

Literatura irakatsi behar nuenean, ikasleak beldurtu egiten zitzaizkidan, astuna zelako eta buruz ika-

si beharrekoa. Orduan, modu erakargarrian irakatsi behar nuela erabaki, eta hortik sortu zen literatura doinu garaikideekin nahasteko ideia. Testu hutsa ez den edozeri harrera ona egiten diote gazteek, eskertzen dute. Ondorioz, euskal literaturaren ibilbidea laburtuko zuen bilduma egitea otu

"Etxepare Rap" izaten ari den oihartzunarekin pozik nago"

zitzaidan, garai desberdinetako hamar kanturekin osatu nuen errepertorioa.

Noiz sortu zen *Etxepare Rap*?

Duela hiru edo lau urte ekin nion proiektuari; hasieran, euskara eskoletarako prestatzen nituen kantak. Gero, ikus-entzunezko edukiak sortzen hasi nintzen, bideoklipa egin nuen eta 2013ko abenduan oholtzara egin nuen jauzi, *Etxepare Rap* saioarekin.

Nolakoak dira zure emanaldiak?

Antzerkia, bideo proiektzioak, irudiak, testuak eta musika daude. Euskal literaturaren errepasoa egitea izan da asmoa, baina gure buruaz barre egiten, ez daukagulako Cervantesik edo Shakespearerik. Baina Machu Pichurik eduki gabe ere gure Trikuharriak maite ditugu.

Oholtzaraigotzerakoan nolade finitzen duzu zure burua?

Agertokietan Imanol Epelde *27 Zapata* bilakatzen da, izen artistikoa jantzita taularatzen naiz. Blogak ere izen bera du, eta *Etxepare Rap* saioaren izena da.

Zibergara taldeak antolatuta, gaztetxean egingo duzu emanaldia.

Hala da; gustura arituko naiz kartzela zaharrean. Zibergara taldeko batzuk ezagutzen ditut, eta beste batzuekin harremana dut, Twitter bidez bada ere. Bergarako gazteak egiten duen lana aberatsa da; besteak beste, irratia eta ekitaldiak. Pozik hartuko dut parte.

***Etxepare Rap* egitasmoa jendaurrean aurkeztzen hasi zinenean, arrakastua izatea espero zenuen?**

Inoiz ez da jakiten egiten denak nolako harrera izango duen. Blegan idaztea bezela da, ez duzu erantzunik espero eta baliteke jasotzea. Nik gustura egiten dudana da, iruditzen zitzaidan jendearen gustukoa izango zela, eta izaten ari den oihartzunarekin pozik nago. Gainera, jendaurrekoarekin beste pauso bat eman dugu, askotariko edukiekin sortutako emanaldia delako.

Antzeko beste proiekturik badaukazu gogoan etorkizunari begira?

Bai, egia esan, asko dira ditudan ideiak. Oholtzan ni azaltzen naizen arren, talde lana da, gogotsu gauden. Oraingoz, honekin nago, baina sortuko dira berriak.

Hezkuntzaren mahaiak LOMCEren kontrako agerraldia deitu du

19:00etan, egunean San Martin plazan batuko dira, eta herritarrei bat egiteko deia egin diete

IMANOL GALLEGO | BERGARA

"Bai LOMCEri aurre egiteko, baita gure hezkuntza propioa eraikitze bidean ere, ezin bestekoa da hezkuntzan dihardugun guztion eta herritar ororen inplikazioa", diote Hezkuntzaren mahaitik.

Datorren ikasturtean, 2014-2015ean, Espainiako Gobernuak LOMCE legea abian jarriko du, aplikazio hori ekiditeko herritarrek antolatzen hasi dira. Euskal Herriko alderdi politikoei eta Nafarroa zein Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarrei egin diete eskaera: legea ez aplikatzea. Gainera, Bergarako zenbait hezkuntza eragile biltzen hasi dira, eta legeari aurre egiteko estrategia bateratuak sortzen dabilta. San Martin ikastetxea, Miguel Altuna, Aranzadi ikastola, Ipintza institutua, eta Helduen Eskolak osatu dute Hezkuntza mahai. Helburua da hezkuntza arloko indarrak

batu, eta hezkuntza propioa eraikitzea, irakasle, ikasle, guraso eta herritarren iritzia kontuan izanda.

Euskal hezkuntza eraiki

Eragileek elkarlanean dihardute euskal hezkuntza propioaren alde lanean. Ikasleen garapen beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala garatu nahi dute, bere baliabide guztiekin. Ikasle eskaldun eleanitzak sortu, Curriculum propioa izan eta ikastetxeen autonomia eta parte hartzea bermatuko duen hezkuntza eraiki gura dute.

Bergarako Hezkuntza mahaiak hainbat ekintza burutu ditu dagoeneko, eta herriko biztanle eta eragileei gonbita luzatu die elkarlanean aritzeko, "asko dugu oraindik egiteko, baina baditugu oinarritzko eduki batzuk adostasun zabala batzen dutenak".

Faboritoei aurre eginez, Diego Valor taldeak 6-0 irabazi du Labegaraietako futbito txapelketa

Ezustea izan zen Labegaraietako futbito txapelketako finalean. Poteo Izarrek kopa irabazi eta gero, faborito bezala iritsi ziren finalera, baina Diego Valor taldeak 6-0 irabazi zien. Labegaraietara gerturatu zirenek ikuskizun polita bizitzeko aukera izan zuten, eta emaitza desorekatuarekin amaitu arren, Poteo Izarrek ez zuten azken une arte amore eman. Egun berean, Komando Piperrak eta Irama Elgetak, hirugarren postua lortzeko partidua jokatzekoak ziren, jende faltagatik, ez zen partidurik izan.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Noiz arte mutu?

Egun hauetan Espainiako erregeen gorabeherek, nazka-nazka, gogaitarazi gaituzte. Eta segiko dute matraka ematen. Behin eta berriz demokrazia zapuztu dute. Apunte txiki bat, lotsagarria benetan PSEren jarrera, baina bestalde oso normala Felipe Gonzalez, Rubalkaba eta kofradiakoak zer diren jakinda.

Baina gatozen gure esparrura. 40 gazte aske gelditu dira sufrikario galanta pasatu ondoren. Aske utzi dituzte, epaileen aburuz! Ezer txarrik ez omen dute egin. Gehiago, torturatuak izan omen dira, azaltzeko esa-

molde leunagoa erabili badute ere. Eta, guk diogu: Injustizia honen aurrean mutu egon behar al dute erakunde nagusietako agintariek eta gotzainek? Poztekoa hainbeste gazte justizia eta askatasunaren uretan murgiltzen ari direla ikustea. Etor-kizuna hor dago. Esker mila, mila esker.

Bestalde *Egunkaria* auzia. Ezer txarrik ez zuen egin, deliturik ere ez epaileen erabakian. Orain, egin den kaltea nork erreparatu behar du? Honen aurrean gure politikoei eta gotzainek zer dute esateko, ezer ez? Baina esatekotan ozenki agertu ez ahopean.

Bankuak eta kaxak egiten ari diren desjabetzeak, familia osoak zubipean lagatzen dituztelarik. Salbuespenak salbuespen, non daude gure politikoei eta gotzainek? Noiz ikusi behar dugu, adibidez, Munilla banketxe baten aurrean gose greban behartsuekin bat eginaz?

Oporretarako, bukatuta Amillagako biribilgunea

Hasi dira Amillagako biribilgunea izango den inguruko lanak. Momentuz, lur azpiko zerbitzuak identifikatu ondoren, horietako batzuk, tokiz aldatu beharko dituzte. Lehen fase horren ostean, azaleko lanei ekingo diete, eta data zehaztea zaila den arren, opor aurretik, biribilgunea bukatua izatea espero dute.



IMANOL GALLEGO

Ibarrondoren zigilua eta postala, kalean

O.E. | OÑATI

Oñatiko filatelia elkarteak Antonino Ibarrondo Oleaga musikariaren omenezko zigilua eta postala atera ditu. Ekainaren 12an beteko lituzke Ibarrondok 100 urte eta hari buruzkoa izango da azaroan egingo dituzten musika jardunaldiak ere. Urteurren horrekin bat eginez, postala eta zigilua atera ditu filatelia taldeak. Turismo bulegoan salduko dituzte. Postala eta zigiluaren prezioa izango da, hiru euro.

ANTONINO IBARRONDO



Antoninon zigilua. | FILATELIA TALDEA

Ikasturteko azken film emanaldia botako dute gaur zinema aretoan

Malditos vecinos filmak itxiko du aurtengo zinema denboraldia. Gaur, astlehena, botako dute filma hori ohiko orduan, 19:30ean, eta horrelaxe bukatuko da udalak ikasturte honetarako prestatu duen zinema eskaintza. Datorren asteburutik aurrera, beraz, ez da filma gehiago botako. Urrian hasiko da denboraldi berria.

Duela 20 urte Uruguain gertatutakoa erakutsiko dute bihar

Duela 20 urte Uruguaiako Filmetro ospitale inguruan gertatutakoa jasotzen duen filma botako dute bihar, martitzena, zinema aretoan 19:00etan. Dokumentalaz gain, hitzaldia ere egongo da gai horren ingurukoa. Oñatiko Euskal Memoria taldeak *Filtro 20 urte* izeko egitasmoaren barruan sartzen da biharko zineforuma.

Josu Erkoreka dator eguaztenen iluntzean batzokira

Oñatiko EAJk gonbidatuta, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburua batzokira etorriko da eguaztenean, ekainaren 18an. Bilera egingo du "herria suspertze ekonomikora eramango duen bidea lantzeko" sortu den lan talde jeltzalearekin eta hitzaldia egingo du gero batzokian.

Erretiratuak kudeatzen duten Lagun Leku lokala ere zabalik dago herritarrendako

Egubakoitzean inauguratu zen Eteoko taberna egon zeneko espazioa, eraberrituta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ateak ofizialki zabaldu ditu Eteoko eraikinean dagoen erretiratuendako Lagun Leku lokalak. Orain arte ere ez ditu itxita izan, hantxe ibili direlako hainbat erretiratu lanean proiektuari forma emateko. "Inguruko auzotarrak eta herriko beste erretiratu batzuen bisitak ere izan ditugu. Hemendik aurrera, baina, ofizialki zabalik dagoela esan dezakegu, denok erabiltzeko", dio Marilo Untzurruntzagak.

Eltzia programaren eskutik, Eteoko bizi berriz bete da eta hori erabiltzaileek ere hortxe dute tokia mokadutxo edo kafetxo hartzeko. Izan ere, erretiratuak kudeatuko duten arren, denendako delako Lagun Leku.

60 interesatu

Proiektu honen bultzatzaileak banaka batzuk izan arren, est-



Lokalaren inaugurazioan, joan den egubakoitz iluntzean. | O.E.

mazio eta harrera oso ona izan du herriko erretiratuaren artean. "Dagoeneko 60 lagunek eman dizkigute euren izen abizenak. Egia da egoitza honen erabiltzaile izateko interesa agertu duten

gehienak Olakua eta San Lorentzo auzoetan bizi direla. Normala ere bada, horiek dutelako gertuen, baina herriko beste kale batzuetan bizi direnek ere etor daitezke, noski", dio Untzurrun-

tzagak. Egubakoitzetik aurrera beraz, Pake Lekuko egoitzaz gain, Lagun Leku ere erabilgarri dute herriko erretiratuak, elkarrekin egon, jolasean ibili edo kafea hartzeko, adibidez.

Katekesiko ikasleek kurtsoa bukatu dute

O.E. | ELORTZA

Katekesian dabilen herriko ikasleek ere bukatu dute aurtengo ikasturtea. Eta ibilaldi batekin eman diote amaiera, gainera. Herriko auzoetan barre-

na egin duten ibilaldi batekin, hain zuzen ere, katekesia antolatzen ibiltzen den batzordeak antolatuta. Gurasoekin batera egin zuten irteera hori hileko lehen zapatuan, ekainaren zaz-

pian, Josean Larrañaga Oñatiko parrokoa gidari zutela.

Merienda

Irteera horretan herriko hainbat auzoetan izan ziren, hango ermitak ikusi eta hango zaindarien bizitza ezagutzen.

Garoa elkartu eta Kasablankara abiatu ziren handik, San Isidro ermitara. San Pedro auzoko remitan egon ziren gero eta handik Madalenakora joan ziren. Josean Larrañaga parrokoak, auzo bakoitzeko zaindariaren bizitzaren eta historiaren zenbait datu eman zizkien. Baita haien egunak noiz ospatzen diren ere. Ibilaldia Madalena auzoan bukatu zuten eta bukatzeko, elkarrekin meriendatu zuten guztiek ermitaren aurrealdean.



Kasablankako San Isidro ermitan. | K.E.

Atez ateko bulego ibiltaria Olakuako dorrean, etzi

O.E. | OÑATI

Hondakinen kudeaketari buruzko informazioa ematen duen bulego ibiltaria Olakuako dorrean egongo da zabalik datorren eguaztenean, hilak 18. Olakua, San Lorentzo eta Ugarkaldeko erabiltzaileei hondakinen kudeaketa informazio bulegoaren zerbitzua gerturatzea da asmoa. Hala, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik beheko pisuan. Apurtutako ontziak aldatzeko eta konpostarako poltsak erosteko aukera ere egongo da. Kale Zaharreko bulegoa arratsaldez itxita egongo da.

Aste guztia Txirrinkaren gosariaren zain

Txaketuaneko kantoian gosari sorpresa emango zuela iragarri zuen joan den astean Txirrinkak, lanera bizikletaz joaten direnendako. Eta ohitura hori dutenek gozatu zuten gosariak, bai, sorpresa azken lan egunean, egubakoitzean, izan arren.



TXIRRINKA

Kiroldegiko makina gela ezagutzeko bisita dago bihar

Igerilekuak itxita egongo dira aurtengo udan makina gelako lanak egiteko

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA
Manuel Muñoz kiroldegiko beheko solairua itxita egongo da uztailetik urri hasierara, hainbat lan egingo dituztelako udan. Hori horrela, igerilekuak, kanpokoak eta barrukoak, itxita egongo dira. Makina gelan egingo dituzte berritze lanok uztaillean hasita. 2002an gela horretako zorua pitzatzen hasi zen, eta gero eta pitzadura handiagoak daudela konturatu dira. Pitzadura horien ondorioz, gainera, altxatu egin da zorua, eta makinek kalteak jasan dituzte. Obrak egiten hasi aurretik, interesa duten herritar guztiek makina gela ikusteko aukera izango dute. Bihar, martitzena, dira bisita gidatu horiek: bata, 10:00etan eta bestea, 18:00etan. Igerilekuak itxita egon arren bi gimnasioak zabalik egongo dira, baina ordutegian aldaketak daude. Uztailako eta iraileko



Manuel Muñoz kiroldegiko kanpoko igerilekua. | GOIENA

ordutegia honakoa izango da: astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00; zapatuetan, 10:00-14:00; eta domeketan, itxita. Abuztuan osterara, astelehenetik egubakoitzera zabalduko dute, goizez bakarrik, 10:00-14:00.

Lan horiek tarifaren ordainketan ere aldaketak eragin dituzte, eta bigarren sehilekoa ordaintzeko bi aukera daudela iragarri dute. Argibide gehiagorako Udal webgunera jo *–www.eskoriaatza.net–* edo kiroldegira deitu.

Bi herrietako gaztelekuko ateak daude zabalik gurasoendako bihar

M.A. | ARETXABALETA/ESKORIATZA
Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleen gurasoendako zabalduko dituzte gaztelekuetako ateak (Aretxabaletakoa, Arkupen eta Eskoriatzakoa pilotaleku alboan) bihar, 18:00etan. Seigarren mailako ikasle horiek, 12 urtekoak, lehenengoz

izango dira gaztelekuko erabilzaile datorren ikasturtean, eta gaztetxo horien gurasoei gaztelekuko kontuen berri eman gura diete. Urte guztian gazteekin egoten diren hezitzaileek egingo diete harrera bertan, eta gaztelekua bera erakutsi eta proiektuaren berri emango diete. Era

berean, ohikoak diren zalantzak eta kezak agertzeko tarteaz izango dute.

Gaztetxoen topalekua
Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo mailatik laugarren mailara arteko ikasleendako topalekuak dira gaztelekukoak, 12 eta 16 urte artekoenak. Eta ekintza mordoan antolatzen dituzte; batzuk, egoitzan bertan –film emanaldiak...– eta beste asko kanpoan –irteerak, jolasak...–.

Patroigintza ikastaro bi egingo ditu Katalin Antxiak uztaillean, Arkupen eta izen-emate epea zabalik dago

M.A. | ARETXABALETA
Moda mundura gerturatu eta patroiekin lanean hasteko ikastaro bi antolatu ditu Udalak. Uztaillean izango dira eta Katalin Antxia aretxabaletarrak jardungo du irakasle lanetan. Hasiberriendako izango da lehenengo ikastaroa, patroigintzan ezer ez dakitenendako. Uztailaren 7tik 11ra egingo dute (17:00-19:00) eta 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena. Zera dio Antxiak: "Patroigintza zer den ezagutu eta oinarritzko ezagutzak ikastea da kontua. Mutil zein neska gorputzaren oinarritzko patroia egiten ikasiko dugu".

Hobetze ikastaroa
Bigarren ikastaroa patroigintzan lehenengo pausoa dagoeneko eman dutenendako da. Uztailaren 14tik 18ra izango da (17:00-19:00) Arkupen. "Coco Chanel diseinatzaileak izendatutako *petite robe noire* jan-

tziak zer esan gura duen ikasiko dugu eta ondoren, zerotik abiatuta soinekoaren patroia aterara. Norberak bere neurriak patroira eramango ditu, eta egindako diseinuaren prototipo bat josi", dio. Argibide gehiagorako eta izena emateko *modubatmoda@gmail.com* helbidera idatzi, uztailaren 3a baino lehen. Prezioa 40 euro da (materiala barruan).



Coco chanel. | FASHION.LINIO.COM



Eskulan ikastaroetan egindako lanak Arkupeko erakusketa aretoan. | M.A.

Eskulan ikastaroetako ikasleen lanak daude ikusgai Arkupeko aretoan

M.A. | ARETXABALETA
Rosa del Aguila irakaslearekin urte guztian lanean jardun duten ikasleek euren lanetako batzuk jarri dituzte ikusgai Arkupe kultur etxeko erakusketa aretoan. Hainbat eratako lanak egin dituzte: umeendako apaingarriak; argazki albumak; esekigailuak; koadroak; markoak; altzari txikiak; kutxatxoak...

Santa Mariñe plaza estaltzearen gaineko bilera dago eguaztenean

Santa Mariñe plaza estaltzearen gainean herritarren iritzia zein den jakin gura du Udalak, eta bilera egingo du horretarako datorren eguaztenean, ekainaren 18an, plazan bertan, 18:30ean. Eguraldi txarra egiten badu kultur etxean elkartuko direla jakinarazi dute. Orduan dute aukera herritarrek horren gaineko iritzia emateko.

Kontserbak zelan egin hitzaldia izango da bihar Jakionekoekin

Zelan egin fruten eta barazkien kontserbak izena duen hitzaldia eskainiko dute kontserbagintzan diharduten Leintz Gatzagako Jakion enpresako adituek bihar, kultur etxean, 18:30ean. Fruta eta barazki freskoak zelan kontserbatu behar bezala eta propietaterik galdu gabe erakutsiko dute, eta era berean, herritarren zalantzak argitu.

'Barruko arrastuak' dokumentala emango dute egunean

Aitzorrotz kultur elkarteak antolatuta *Barruko arrastuak* dokumentala emango dute egunean, hilaren 19an, kultur etxean, 18:30ean. Azken bost hamarkadatan (Frankismo garaitik gaur egunera arte) Oñatin izan diren atxilotuen berri jaso dute bertan, eta torturatuak izandako 59 oñatiarretatik bosten testigantzak jaso.

NIRE USTEZ

IÑAKI AGIRIANO



Norabidea

nteletual, liburu bilatzailer eta kopiatzaile bikain batek, Poggio Bracciolinik, Lucreciok K.a. I. mendean idatzitako *De rerum natura* poema filosofikoa aurkitu zuen 1417an, Alemaniako monasterio batean. Poema horren aurkikuntzak eta ondorengo hedapenak gure garai-ko mugimendu filosofiko materialisten oinarriak finkatu zituela defendatzen du S. Greenblatt-ek *El giro* liburuan. Izan ere, ba al dago guk ezagutzen dugun mundua eragin duten ideien historia baino gauza liluragarriagorik? Norabide berri batean jartzen gaituzten ideien, mugimen- duen historia, alegia.

2014ko ekainaren 8an, norbanako batzuek, libreki, euskal gizarteak dituen loturak, zauriak, minak, beldurrak, zalantzak... gaintitu nahian, pertsonen arteko konfiantzan oinarrituta mugimendu berri bat jarri dute abian. Ilusio berriak sortu dituen mugimendua. Jendeak aurrera egin nahi du, jendeak harreman sanoak nahi ditu izan. Asko falta da, bai! Baina, ez ote da bide berri hau euskal gizartea norabide berri batean jarri ahal izango duena? Ekainaren 8an, giza katea osatzeko asmoz atera ginenok, norabide berri bat eskatzen ari ginen. Alderdien itxitasunak, bai alde batekoak zein beste-koak, albo batera utzita, izan gaitezela gu geu, herritarrok, protagonista bihurturik herri hau beste bide batean, norabide berri batean, jarriko dutenak.

XV. mendean, Poggio Bracciolini kopiatzaile humanistak Lucrecioren liburua zabalduz, errenazentisten pentsatzeko eta mundua ulertzeko era aldatu eta norabide berrian jarri bazuen gizartea, ekainaren 8an eratutako bide berriak ez al digu ba lagunduko norabide berria bilatzen?

Txotxongiloak eta arpa eta perkusio emanaldia astean

Udalak antolatutako 7x7 kultura kalean ekimenaren barruan *Ipuin magikoak* txotxongilo emanaldia izango dute neska-mutikoen Bihar taldearekin etzi, eguaztena, Santa Kurtzeko plazatzon. Egubakoitzean, osterara, arpa eta perkusio emanaldia egongo da Gurea tabernaren atzean. 19:00etan dira biak.



Aitor Montes medikuaren eskaerak —argazkian eskaera eskuan dutela— hainbat herritarren babesa jaso zuen. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Ordezko medikua elebiduna izateko eskaera gaur helduko da Osakidetzara

Aitor Montes Aramaioko medikuaren ekimenez egingo da aldarrikapena; Udalak, Uemak, Txirritolak eta zenbait herritarrek babesa erakutsi diote

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udako oporretan Aramaioko ordezkoko medikuek ez dute euskaraz jakin izan. Bada, hizkuntza eskubideak errespetatu daitezela aldarrikatzeko, Aramaioko mediku Aitor Montesek eskaera ofiziala aurkeztuko du gaur Debagoieneko ospitalean. Eskaera garbia da, ordezkoko medikua ere elebiduna izatea: "Elebiduna esaten dut eta ez euskalduna: halako eskaerak egiten direnean beti esaten da gauza bera; diskriminatzailea dela, baztertzatzailea. Horregatik elebiduna: Aramaion erabiltzaile edo paziente euskaldunak eta erdaldunak daude, eta osasun arreta ele bitan eskaini behar da derrigorrez, euskaraz zein gaztelera", adierazi du Montesek.

Iaz eskaera bera egin zuen baina ez zuen ezertarako balio izan: "Iaz e-posta erabili nuen, Osakidetzako barne-harremantarako erabiltzen dugun e-posta. Baina ez zidaten jaramonik egin, eta Aramaiora etorri zen medikua elebakarra zen, ez zekien euskaraz", gogoratu du. Jokatzeko

modua aldatuta ere, Montesek ez daki balio izango duen: "Eraginkorra izango da? Eta hala bada, datorren urtean beste herrietako medikuak edo Udalak animatuko al dira? Hori denborak esango du".

Herritarren babesa

Eskaera herritarrengandik datorrela erakusteko talde argazkia atera zuten egubakoitzean Bizen-te Goikoetxea plazan; bertan egon

ziren Montes bera eta Udaleko ordezkariak —Ramon Ajuria alkatea barne—, Uemako presidente Maren Belastegi eta Txirritola euskara elkarteak kideak, besteak beste. Herritarren erantzunarekin "oso pozik" zegoen alkatea: "Ordezko medikuarekin euskaraz egiteko aukera eskatzen dugu, ez besterik".

Euskaldun tasa %85ekoa

Uemako presidente Maren Belastegi Aramaioko euskaldun tasa oso altua dela nabarmendu zuen: "Aramaion %85ekoa da euskaldun tasa eta beraz, mediku elebiduna izatea beharrezkoa dela uste dugu. Gustatuko litzaiguke ekimen hau udalerrira euskaldun guztietara zabaltzea". Izan ere, Uema osasungintzan ere badabil lanean: "Osakidetzako arduradunekin bildu ginen baina lanean jarraitu behar dugu. Aramaioko medikua oso kontzientziatuta dago eta aitzindari izan da; honakoa abiapuntua izango da lanketa bat egiteko, garrantzia handia dauka-eta".

ESANAK

"Eraginkorra bada, datorren urtean beste herri batzuk ere animatuko al dira? Denborak esango du"

AITOR MONTES | ARAMAIOKO MEDIKUA

ANTZUOLA

Hector Prietok elbarritasunaz berba egingo du bihar Oleranen

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hector Prieto Rosadok (Aretxabaleta, 1983) elbarritasunaren eta mendekotasunaren gaineko kontuak jaso ditu txosten batean. Jasotakoaren berri emango du bihar, ekainak 17.

30 urte ditu Prietok, eta, besteak beste, herrian zehar ibiltzeko dituen arazoak azalduko ditu. "Esperientzia pertsonaletik abiatuta elbarritasunaren ondorioz sortutako arazoak ezagutzera eman gura dizkiet herritarrei;

arazook Aretxabaletan zelan bizi ditudan nik, hain justu", azaldu du. Oztopen gainean, berriz, hausnarketa hau egin du: "Norberak ez badu zailtasunik ez da samurra horretaz konturatzea baina ez gura ez duelako; bakoitzak bere bizimodua du eta ez da halakoetan geratzen. Elbarriarendako, oster, oztopo txiki bat arazo handia izan daiteke".

Landatxo elkarteak kideek antolatutako hitzaldia 18:30ean Oleran etxean egingo da, bihar.



Hector Prieto. | MIRARI ALTUBE

ELGETA

Ikerketa baten arabera gehiegizko pisua dute herriko umeen %33,30ek

Nutrizio maila ona da, baina astean ordubeteko jardura fisikotik behera egiten dute %14,06k

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Haurren obesitatea eta horrek heldutasunean dakartzan ondorioak gutxitu nahian, PENSOI Proiektuak Debagoieneko haurren gehiegizko pisuaren prebalentzia aztertu du. 967 ikaslek erantzun dute, tartean Elgetako Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei. Elikaduraren eta familia-ohituren inguruko galdeketa bat erantzuteaz gain sendagile talde batek pisatu eta neurtu ditu haurrak.

Ikerketaren emaitza

Emaitzaren arabera, Elgetako neska-mutikoen %66,70ek pisu egokia dute. Gehiegizko pisua dute umeen %33,30ek. Datuak

hobetu daitezke, baina Mundu Osasun Erakundeak erreferentzia gisa dituen batz besteko datuak baino hobeak dira; pisu egokian da umeen %31,60 eta gainpisua dute %37,50ek.

Nutrizio maila ona dute Elgetako umeen %80ek. Ertaina da kasuen %13,30ean, eta oso baxua %6,70ean. Batz bestekoaren gainetik daude datu horiek ere.

Sedentarismo maila ere neurtu dute ikerketa horretan. Eskolaz kanpoko kirol jardueretan astean hiru ordutik gora egiten dituzte Elgetan umeen %73,30ek. Bat eta hiru ordu artean, %17,17k, eta astean ordubete baino gutxiago %14,06k.



Haur taldea Bolatokiko parkean, jolasean. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Herriko jaiak prestatzen hasiko dira oraingo astean

Aurten, astelehenean tokatzen da zaindariaren eguna; beraz, jaiak egubakoitzean hasiko dira

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Irailaren 5ean hasiko dira aurten Leintz Gatzagako jaiak, Dorletako Amaren eguna irailaren 8an delako.

Horixe da, oraingoan, segurua izango den jaien gaineko ezagarrietako bat. Bestea da haiek antolatzeak aurrekontua: 12.000 euro. Iazko berbera. Hau da, ez du igoerarik izango; ezta jaitzietarako ere, egia esan. Edozelan ere, herriko jaiak prestatzeko diru kopuru xumea da Udalak erabiliko duena, egungo egoerak behartuta.

Eguaztenean

Kontuak kontu, handi edo txiki, baina jaiak prestatu egin behar dira. Eta zeregin horretan hasi gurako luke Udalak astean. Hala, etziko, eguaztena, batzarra deitu du, jaiak antolatzen hasteko.

Deialdia zabalik dago zeregin horretan lagundu gura duten herritar guztiendako. 19:00etan da hitzordua.

Egur-sortak

Bestalde, gogoan izan behar da onura publikoko mendietako egurretik datorren auzo-egurraren aprobetxamendurako zozketarako izen-ematea laster bukatuko dela: ekainaren amaieran. Gatzagako Udaletik esandakoaren arabera, jaso dituzte egur hori eskuratzeko hainbat eskaera; hala ere, gogora ekarri gura dute oraindik bada-goela halako gehiagorendako lekua. Horretarako izena eman behar da udal bulegoetan (943 71 47 46). Eskatzaile guztiekin egingo duten zozketaren eguna finkatzen dutenean jakinaraziko dute data.

Goiena Klubeko ekaineko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



HP 2540 Inprimagailua

Inprima ezazu zure smartphone edo tabletetik zuzenean.

Parte hartzeko sariaren izena:
Inprimagailua

Arrasateko hipermerkatua



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



argia

Joko sorta

"Badakit" eta "Bazen behin bizitza"
jokoek osatutako 2 joko sorta.

Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoak



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuk

Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez
osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzeko. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA



Rezusta, ezker eskuaz pilota kolpatu berri. | JOSETXO ARANTZABAL



Mikel Gallastegi ondoan, lasai egoteko esaten. | JOSETXO ARANTZABAL



Partidua amaitutakoan, Beñat Rezustak Bergararik joandako lagunekin egin zuen talde argazkia, garaikurraz eta txapelaz. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Bergararik joandako zaleen aurrean jantzi du Rezustak onenaren txapela

- Lehenengo saketik hasi zen Bergarakoa min egiten, eta alde polita lortu zuen
- Ezkerreko hatz txikian min hartu ostean zalantzati ibili zen, baina ondo amaitu zuen

EMAITZA

IBAI ZABALA

10-22

BEÑAT REZUSTA

XABIER URZELAI | ARRASATE

Ezker esku eder horrek ez zuen finalean hutsik egin, eta hatz txikian min hartu bazuen ere, Beñat Rezustak (Bergara, 1993) ez zuen garaikurra solte uzteko asmorik, ez behintzat partidua amaituta Reyes Azkoitiaren besar-

kada jasotzen zuen bitartean. Txapela soinean eramateko, berriz, ez zuen eskurik behar, eta bai ondo jantzitako burua: "Halako partiduen aurrean erakusten duen lasaitasuna ez da normala, badu zerbait berezia", zioen Aspeko prentsa arduradunak aste barruan, Rezusta zenbaterainoko faborito zen galdetuta. Ba bai, badu zerbait berezia.

Zabala, aukera barik

Hasierako saketik hartu zuen Bergarakoak alde (1-5), eta Zabala markagailuan gerturatu egin bazitzaion ere, azkar handitu zuen alde. Eta hori, Rezustak hainbat opari egin zituela, baina

kontrarioak ez zuen horiek aprobetxatzen jakin, eta kontrara, Zabalak egindakoak bikain aprobetxatu zituen Aspekoak.

Hala ere, Bergarakoak ez zuen aparteko oparirik behar. Ezkerreko ondo emanda Asegarcetako defentsa lanean ibiltzera behartu zuen, eta txukun jardun zuen gainera: "Baina etengabe defentsan ibiltzea ez da seinale ona", zioen Berrizkoak partidua amaitutakoan.

Emoziotik gutxi izan zuen partidua, 5-19ra ere egon ziren, finala izateko aurreikusi baino egur handiagoa jaso behar zuen Zabalak, Rezustak min hartu zuen arte. 6-19koan Rezustak ez zuen tantoa ondo amaitu, saldu-

ta utzi zuen bere burua, eta zazpigarren koadroraino korrikaldia egin behar izan zuen Zabalaren pilotakadari erantzuteko; postura txarrean ahalegindu zen, eta min hartu zuen hatz txikian.

ESANAK

"Min hartzean urduritu naiz, baina amaitzea lortu dut"

BEÑAT REZUSTA | ASPEKO PILOTARIA

Aldagelara bidean

Batek baino gehiagok pentsatuko zuen hura ez zela seinale ona, baina minutu gutxira itzuli zen, hatza babestuta, lekutik irteten zitzaiolako. Orduan sortu zitzaizkion zalantzak, eta Zabalak bost tanto egiteko aprobetxatu zuen hori. Baina aulkian lagun zuen Gallastegik lasai egoteko esan, hari kasu egin, markagailuan zuen aldeaz jabetu eta partidua amaitzeko gauza izan zen (10-22): "Txapelketa nahiko erregularra egin dut, eta finalean opariren bat egin dut, baina gustura geratu naiz egindako lanaz". Profesionalak lehen urtea borobildu du, eta adi, datorren urtean onenekin izango delako.



ARANTZABAL



Finalistak, saria jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Zaleak harmailetan, animatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Jose Luis Abaunz-ek presidentearen eskutik jaso zuen, ostera, duela 20 urte irabazitako garaikurra. | XABIER URZELAI

FUTBOLA

Hogei urte pasa badira ere, Aloñako elastikoa, neurrira

Zapatuan lagunartekoa jokatu zuten egungo Aloñako jokalariek, eta duela 20 urteko 'beteranoek'

X.U. | OÑATI

Aloña Mendik ez ditu garai bateko jokalarierreferenteak ahaztu; klubarendako urte historikoa izan zen 1994koa, Hirugarren Mailara igo zirenekoa. Eta zapatu eguerdian orduko jokalarierasko eta asko elkartu ziren ostera ere Azkoagaingo berdegunean –orain belar natural barik– lagunartean partidu bat jokatzeko asmoz.

Aspaldiko lagunak agurtuz

Garai bateko kontuak gogoratzeke eguna izan zen, eta aspaldikolagunak agurtzekoa. Partidua hasi aurretik, egungo Aloñakojokalariek *pasilloa* egin zieten orduko jokalariei –26 beterano etorri ziren guztira– eta ondoren Javi Azpiazuk orduan irabazitakokopa eman zion ostera ere kapitainari, Jose Luis Abaunz *Montxo*-ri. Segidan, Manolo Viei-

tes zale amorratuari omenaldi txikia egin zioten, jokalariguztiek sinatutako baloia oparituz; garai hartan Manolok etxeko eta kanpoko partidu guztietan jarraitzen zuen Aloña Mendi. Ondoren, dantzarietak aureskua dantzatzieten beteranoei –asko eta asko seme-alabekin etorri ziren– eta talde argazkia atera ostean hasizen lagunartekoa. Partiduko emaitza... Hori gutxienekoa da.



Talde erretratua, oraingo eta lehengo jokalariek, denak batera. | X.U.



Jokalariek txaloekin hartu zituzten beterano guztiak. | X.U.



Julio San Vicente agindua ematen.

AUTOMOBILISMOA

Udanako auto igoerako txapelak debagoienean geratu dira

Zabaleta, Markel Cestafe eta Ander Corcuera, bailarako protagonistak



Zabaletak, hirugarren txandan, bost segundo gutxiago egin zituen. | X.U.



Markel Cestafe Udanako lehenengo kurba itxian. | X.U.



Ander Corcuera, bigarren txandako irteera puntuan. | X.U.

XABIER URZELAI | ARRASATE

Euskadiko Mendiko Sariko lau garren garaipena eskuratu zuen zapatuan Aitor Zabaleta bergararrak, eta proba amaitutakoan aitortu zuen astebururo lasterketak korritzeak mesede egiten diola, autoari "eskua hobeto hartzeko. Izan ere, barketa honekin ezin da entrenatu, hori du txarra". Hala, hirugarren txandan 2:13,884ko denbora eginda sei segundora geratu zitzaizkion Iraolaren eta Ordokiren Silver Car-ak.

Zabaleta ez zen bailarako protagonista bakarra izan, turismo-tan Markel Cestaferen Mitsubishiak "hegan" egin zuelako (2:31,459). Bergarakoak zelako pike ederra duen Aitor Ramirez oñatiarrarekin –segundo batera–. Eta, Corcuera, Txus Jaiok eta Iñaki Alberdik daukaten lehia 10 klasean ez da makalagoa, baina aspaldian Arrasateko pilotuak zuku guztia ateratzen dio haren Volkswagen Golf GTI autoari, eta sinsitu, zuku handia da hori. Hala, lasterketan zehar aparteko arazorik izan barik, eta autoari aparteko aldaketarik egin barik, Corcuera gailendu zen (2:34,081), Txus Jaiori ia bi segundo aterata.

Arazo gabeko lasterketa

Ordua zen Udanan errepide sikuian lehiatzeko, azken urteotan euria egin du-eta. Andoni Boyerok izan zuen istripu handiena, Golf-arekin bide ertza jo zuenean, baina ez zuen minik hartu. Oñatiar guztiek amaitu zuten proba.

MOTO-KROSA

Jon Idiakez izan zen elite mailan azkarrena, tarte polita eskuratuta

Hautsa ez altxatzeko botatako urari esker Bergarako zirkuituak itxura ona erakutsi zuen

X.U. | BERGARA

Bergarako motoklubeko ordezkariak azken asteotan zirkuituan egindako lanak emaitza onak eman zituen. Asier Blazquezek aste barruan adierazi zuen zenbat harea eraman behar izan zuten zirkuitua txukuntzeko, baina lan

ona egin zuten, eta pilotuek ikuskizuna eman ahal izan zuten zapatuan.

Elitean Idiakez, oso ondo

Hainbat kategoriatan lehiatu ziren zapatu arratsaldean. Nagusian, baina, Jon Idiakez izan zen



Moto pilotua, Bergaran. | I.S.

lehenengoa 25 itzuli ematen –50 puntu batuta. Bigarren sailkatu Iker Utergak 22 itzuli eman zituen eta podiumera igo zen hirugarren ordezkariak, Jose Maria Mendezek, 20 itzuli eman zituen. Hala, Urtzi Markiegi bergararra 21. postuan sailkatu zen.

IGERIKETA

Igerilari koadrila galantak gozatu zuen zapatuan Txantxiku sariaz, Oñatin

X.U. | OÑATI

Oñatiko igerilekua neska-mutikoz bete zen zapatu arratsaldean Txantxiku Saria jokatzeko, eta ondoren, igerilekutik pilotalekura joan ziren denak, sari banaketa egitera –ordukoa da erretratua.

Hala, aurten ere Txantxiku Saria irabazteko ez zen lehia

makala egon, guztira 315 igerilari batu ziren-eta: "Denboraldia amaitzeko egiten dugun jai modukoa dela esan genezake, eta sasoi honetarako denbora onak egin zituzten gaztetxoek", adierazi zuen Xabier Infante Artza-k. Klub mordoia etorri ziren: "Askok 28 urtetan ez dute kalerik egin".



Pilotalekuan egin zuten sari banaketa. | SORIANO

MENDIA

Jokin Garai oñatiarra hirugarren izan zen Hiru Handiak mendi zeharkaldian 11:16ko denbora eginda

Javi Dominguez gasteiztarra (11 ordu) eta Silvia Trigueros bizkaitarra (12:48) izan dira aurtengo Hiru Handiak proban atletarik azkarrenak. Gizonezkoetan, baina, azpimarratzeko lana egin zuen Jokin Garai oñatiarrak, podiumeko hirugarren koskara igo zen-eta, irabazlearengandik 16 minutura helmugaratu ostean. Maite Anton izan zen bailarako emakumezko onena, Aloña Mendikoa 19.a izan zen, 18:49ko denbora eginda.



Zirkuituan zehar moto gidariek salto ikusgarriak egin ahal izan zituzten. | IMANOL SORIANO



Oxel Vazquez eta Alex Elortondo karate erakustaldia eskaintzen Herriko Plazan. | MIRARI ALTUBE

KIROL JAIA

Aretxabaletarrak kirolez blai eginda

- Gimnastika erritmiko, judo, karate eta trialsin erakustaldiek aho zabalik utzi dituzte herritarrak
- Bizikletan, dokean, pilotan, saskibaloian eta beste hainbat kiroletan jarduteko aukera izan dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Kirola izan da jaun eta jabe aste bukaeran Aretxabaletako bazterretan. Futbola ez beste kirol mordoa. Egubakoitzean gimnastika erritmikoko taldeak eman zion hasiera UDak (herriko elkarre askorekin batera) antolatutako *Aretxabaleta kirolez busti* ekimenari, eta atzo, domeka, Murruxio mendizale elkartearen VIII. mendi martxarekin bukatu.

Ikusi eta ezagutu
Futbolaz gain herrian beste kirol batzuk ere egiten direla erakutsi dute. Hala, Desoreka klubean judoan jarduten duten 20 bat neska-mutikok jolasak egin zituzten lehenengo eta erakustaldia gero.

Aretxabaleta kirol elkarte barruan dagoen Karate taldeko kideek, beste 20 inguru, kumite (teknika erakustaldia) eta kata (borroka) modalitateen berri eman zuten. Aparteko borrokalariak –hainbat txapelketatan sarituak– daudela herrian erakutsi zuten horrela.

Trialsin taldekoek ere oztopoetatik gora eta behera jardun zuten bizikletarekin, ikusleak aho zabalik utziz. Eta eskalatzea gustuko dutenek herriko hormetan gora ibili ziren.

Pakistandarrek, ostera, bertakoendako erabat ezezaguna den cricketaren berri eman zuten. Kiroldegi aurreko zelaian jokatu izan duten arren oraingoan pilotalekuan elkartu ziren.

Lasterka eta mendira
Erakustaldiez gain jokatzeko aukera ere izan dute herritarrek. Hala, dokean jardun zuten batzuek erretiratuekin, eta hasiberriek irabazi, gainera. Orain errebantxa etorriko dela iragarri dute.

Frontenis txapelketan sei bikotek hartu zuten parte, eta presoen aldeko lagunek antolatutako *Pilotakaz pilotakada* ekimenarekin bat egin.

Lasterka jardun zuten neska-mutikok Durana kalean, eta saskiratze txapelketa ere egin zuten, heldu eta umeen artean. Mendi bizikleta irteerak eta Murruxioren mendi martxak borobildu zuten jaia, azken horretan 250 lagun elkartu ziren atzo.



Durana kaleko lasterketatan parte hartutako neska-mutikoak. | M.A.



Antonio Serrato dokean jokatzen Basotxo aurreko zelaian. | M.A.



Judoan jarduten duten umeak jolasean tatami gainean. | M.A.



Lierni eta Oihana, Leire eta Larraitzen aurka frontenisean. | M.A.

AGUSTIN AGINAGALDE
DOKE JOKALARIA



"Erretiratu asko ez gara elkartu, baina ederto pasatu dugu. Sekula jokatu egin bako bikoteak irabazi du, gainera. Dokea bultzatzeko ekimen bikaina dela uste dut, eta aurrerago ere egingo dugu txapelketaren bat".

ESTEBAN ETA IKER
KORRIKALARIAK



"Durana kalean korrika egin dugu biok, bi buelta eman dizkiogu kaleari, eta lehenengoa eta bigarrena izan gara. Ondo pasatu dugu, lagunaren artean izan delako lasterketa, baina nekatu ere egin gara".

ODEI VAZQUEZ
KARATE JOKALARIA



"Futbolaz kanpo beste kirol batzuk ezagutzera emateko ordua bazen. Hainbat adinetako karatekak egon gara eta zer egiten dugun erakutsi. Taldean gainera, baditugu hiru bat txapeldu eta jendeak ez daki".

SIFTUL HASAN
CRICKET JOKALARIA



"Hamaika jokalariko bi talde daude cricketean. Batek pilota botatzen du eta beste bik horri itxoin; batek jo eta bestea ibilbidea egiteko zain egoten da. Kiroldegi parean jokatzen dugu baina beste leku bat balego...".

ADRIAN MERINO
UDAKO PRESIDENTEA



"Futbolak atentzio guztia hartzen du urtean zehar, eta gaur erakutsi dugu gazteek zein helduek beste kirol batzuk ere egiten dituztela. Oso ondo joan da egun guztia, jende askok hartu du parte eta pozik gaude".

TXIRRINDULARITZA

Marianne Vos txapeldun Oñatin, Emakumeen Biran

Ehun bat txirrindularik hartu zuten parte Biraren bigarren etapan

ANE ELORDI | OÑATI

Marianne Vos munduko txapelduna gailendu zen egubakoitzean Oñatin, Emakumeen Biran. Lehendabiziko aldiz hartu zuen Oñatik emakumezkoen txirrindularitza txapelketa. Txirrindulariek 113 kilometroko etapa egin behar izan zuten. Udanan gora astindua eman zuen, eta beheranzkoan tropeletik aldentuta, bakarrik iritsi zen helmugara Rabobank taldeko txirrindularia. Garaipena eta lidergoa lortu zituen Marianne Vos, 27 urteko txirrindulari nederlandarrak.

Txirrindulariak 16:00ak aldeira irten ziren helmugatik, ohorezko agurra egin ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiko bozemaile Larraitx Ugartek eman zion hasiera lasterketari. Txirrindu-

Vos eta Ferrand itzuliko buru

Rabo Liv Women taldeko Pauline Ferrand eta Marianne Vos izan dira protagonistak. Bina etapa irabazita, Ferrandek irabazi du Bira eta Vos bigarren izan da 1,12 minutura.

Marianne Vos munduko txapelduna zen faborittoa, eta Oñati eta Ataungo etapak irabazi ditu. Baina Pauline Ferrand gogor aritua da, eta jaso du merezitako garaipena. Talde bereko Anna Var der Breggen izan da hirugarren sailkatua.

lariak hiru aldiz igaro ziren Oñatik, eta Udanako igoera izan zen arratsaldeko ekitaldirik erabakigarriena. Izan ere, hasieran, tarteko helmuga igaro arte, taldea bat eginda egon zen, eta ez zen lehia gogorregia antzematen.

Udana, tarte erabakigarria

35. kilometroan, hiru txirrindularik tropeletik ihes egitea lortu zuten. Hala ere, Udanara igoera hasi orduko, txirrindularien aldeak beherantz egin zuen, lasterketaburu zen hirukotea eta tropelaren artean hamabi segundoko aldea baino ez zegoen. Egoera horretaz baliatu zen Marianne Vos, Udana gaina lehen postuan egin zuen, eta beheranzkoan lasterketa buru bilakatu zen. Jai-tsieran erabaki zen lasterketa.



Marianne Vos helmugara iristen. | IMANOL SORIANO



Txirrindulari saritu guztiak podiumean. | IMANOL SORIANO



ARDO EGUNA

IMANOL SORIANO

Ardoa eta liburua esku artean

Berrikuntza aipagarri bat izan du aurtengo Ardo Egunak. Mondra Futbol Taldeak antolatu zuen zapatuan, eta argitaratu berri duten *Aupa Mondra!* liburua salgai zegoen lehenengoz. Harrera ona izan zuen arrasaterren artean eta salmenta arrakastatsua izan zela adierazi zuten antolatzaileek. Jendetza bildu zen Seber Altube plazan; jana eta edana aitzakia hartuta, giro polita sortu zen.

KENPO TXAPELKETAK

Kenpo txapelketetan gustura arrasatearrek egindako lanarekin



Gaztetxoak katak egiten zapatuko txapelketan. | IMANOL SORIANO

ANE ELORDI | ESKORIATZA

Hainbat domina lortu zituzten kenpo borrokalari arrasatearrek zapatuko txapelketetan. Gipuzkoako eta Euskadiko Kenpo Txapelketak jokatu zituzten Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Arrasate, Oñati eta Eskoriatzako kenpo taldeek hartu zuten parte, beste hainbat talderen artean. Guztira, 200 borrokalari bildu ziren borroka arte horretan lehiatzeko. Lehendabiziko postuak klubaren artean nahiko banatuta geratu ziren.

Adin guztietako borrokalariak elkartu ziren, eta hainbat ariketa egin zituzten lehiaketen baitan: katak hasteko, gero goshiak, defentsa pertsonaleko erakustaldiak zein simulazioak, eta azkenik, bikoteka borrokaldiak. Ikusleek gertutik jarraitu zituzten.

ESKUBALOIA



IMANOL SORIANO

Gipuzkoarrek eta nafarrek irabazle Korpus txapelketan

Oñatin elkartu ziren Hego Euskal Herriko lau eskubaloizko selekzioak zapatuan: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa. Zubikoa kiroldegia 160 neska-mutil jaso zituen. Korpus txapelketaren zazpigarren edizioa hasi orduko, kiroldegia beteta zegoen. Goizean sailkapen partiduak jokatu zituzten, eta arratsaldean, finalen ordua izan zen. Mutil gipuzkoarrek irabazi zieten bizkaitarrei, (32-12); eta nesken mailan, nafarrek gailendu ziren, gipuzkoarrek atzean utzita (27-20).

ESKU PILOTA

Pilotari debagoiendarrak garaile aurtengo Debarro txapelketan

ANE ELORDI | ESKORIATZA

Arrasate, Bergara eta Sorluzek txapel bana irabazi dute Debarro txapelketan. Zapatuan jokatu ziren finalak Eskoriatzan eta debagoiendarrak garaile izan ziren, orokorrean. Hiru final jokatu zituzten, eta horietako bi irabazi, Arrasatek eta Bergarak,

Hiru partiduetatik gazte mailako partida izan zen ikusgarriena. Lehia gogorra izan zen, eta (22-15) irabazi zieten arrasatearrek sorluzearrei. Kadeteetan bergararrak gailendu ziren erraz; izan ere, hiru tanto baino ez zituen lortu Debarro bikoteak. Seniorretan, berriz,



Debarro txapelketa. | IMANOL SORIANO

nahiz eta irabazle argirik ez izan, Sorluzeren aldeko apustuak ziren nagusi. Pronostikoa beteta, Sorluzek aurea hartu zion Bergarari, 22-19.

Elena Lanuza | Gimnasia entrenatzailea

"Gutxi kostatzen zaigu neskak motibatzea, berez gogoz datoz eta"

- Gimnasia erritmikoko eta kirol aerobikoko entrenatzaileetako bat da Elena Lanuza
- Hiru domina lortu zituzten Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoek Espainiako txapelketan

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Arrasateko Dragoi gimnasia taldeko entrenatzaileetako bat da Elena Lanuza (Arrasate, 1978). Dragoi taldea primeran ezagutzen du, urte asko daramatza-eta klubean. Berriki, emaitza onak lortu dituzte Dragoi taldekoek Espainiako txapelketan. Harekin hitz egin dugu klubaren eta kirol honen inguruan.

Kirolari izatetik entrenatzaile izatera pasatu zinen. Zergatik?

Oso gustuko dut kirol hau. Bere garaian nire entrenatzailea zen eta oraindik ere taldean jarraitzen duen Arantzazu Zubiak animatu ninduen klaseak ematen hastera, uzteko erabakia hartu nuenean. 18 urte nituen utzi nuenean eta Arantzazuk emandako aukerari baiezkoa eman nion.

Espainiako txapelketan hainbat domina eskuratu dituzue. Esperotako emaitzak izan dira?

Sorpresa handia izan da guretzat. Dominaren bat lortzeko esperantza genuen, baina inolaz ere etxera hiru dominarekin itzultzea. Maila handia zen, eta geroz eta partaidetza handiagoa dago Espainiako txapelketan. Neskek txapelketa bikaina egin zuten, ia akatsik egin gabe, eta emaitza ere halakoa izan zen. Oraindik burutik kendu ezinik gaude.

Nola prestatzen dituzue horrelako txapelketak?

Entrenamenduak bi bloketan banatzen ditugu: alde batetik, fisikoki prestatzen ditugu; bestetik, alde tekniko edo espezifikoagoa ere lantzen dugu. Koreografia prestatzen hasten gara, betiere, indarra, erresistentzia eta flexibilitatea landu ondoren. Gero, koreografia hobetzen dugu zailtasun handiagoko mugimenduak sartuta.

Valentziako txapelketan kontzentrazioan zeundetela ere entrenatzen zineten?

Bai. Egubakoitzean entrenamendu ofiziala egin genuen. Autonomia erkidego bakoitzak denbora bat du ariketa kopuru bat egiteko. Denbora hori aldatu egiten da talde batetik bestera, bakoitzak egingo duen ariketa kopuruaren arabera. Gutxi gorabehera, ordu-betez entrenatzen da. Horren ondoren, zapatuan hasten da benetan txapelketa.

Kirol honek sakrifizio handia eskatzen du. Nola daramate hori gazteek?

Entrenatzen ordu asko pasa behar dituzte, eta gogorra da batzuetan. Hala ere, Dragoi taldean daude-



Elena Lanuza, Dragoi taldeko gimnasta gazteekin. | DRAGOI TALDEA

nak oso gustura etortzen dira entrenatzera. Izan ere, gustatzen zaien eta denbora librean egiten duten jarduera bat da, eurek nahi dutelako daude hemen. Beraz, oso gutxi kostatzen zaigu haiek motibatzea, berez gogo handiz datoz-eta.

Entrenatzaile moduan zein da zure funtzio nagusia taldean?

Taldean dauden nesken artean kirol honen balio positiboak zabaltzen saiatzen naiz. Gimnasia errealtatea benetan nolakoa den ikus dezaten nahi dut. Emaitza onak lortzeak ahalegina eskatzen duela esaten diet, adibidez, edota kiroltasunezko jarrerara izaten erakusten diet, bai gainontzeko lehiakideekiko eta baita entrenatzaileekiko ere. Orokorrean, kirolari batek izan behar dituen balioak dira.

Zu ez zara taldeko entrenatzaile bakarra. Zuetako bakoitza gauza desberdin batez arduratzen da?

Gaur egun, bost gara taldean gauden entrenatzaileak, eta nibe-laren eta adinaren arabera taldeak ditugu eginda. Ni kirol aerobikoa egiten dutenen eta eskola mailan lehiatzen direnen kargu nago.

Urtean zehar txapelketa asko izaten dituzue? Badago jarraitutasuna izateko adina txapelketa?

Euskal Herri mailan oso lehiaketa gutxi daude. Lehiatu nahi duenak kanpora joan beharra du. Asteburuan, esaterako, L'Hospitalet-eko torneo batean izan gara. Neskek jarraitutasuna izan dezaten horrelako irteerak egin beharra dago. Hemendik atera gabe zaila da jarraitutasun hori izatea. Euskal Herrian kirol aerobikoa egiten duten hiru klub soilik daude, bakarra probintzia bakoitzean. Nahiago genuke gehiago lehiatzeko aukera izatea.

Talde-lana eta taldekideen arteko koordinazioa oso garrantzitsuak

dira. Taldekideen artean giro ona izateak beti laguntzen du, ezta?

Bai, funtsezkoa da hori. Gimnastek elkarren artean eta entrenatzaileekin giro ona behar dute. Bidaiek laguntzen dute hori lortzen, neskek harreman estuagoa izatea eta talde espiritu handiagoa edukitzea lortzen baita. Txapelketak eta entrenamenduak baliagarriak dira horretarako. Horretaz gain, beste jarduera batzuk egiten ere ahalegintzen gara. Afariak eta antzekoak egiten ditugu, euren arteko erlazioa estutzeko.

Lesio asko izaten dira?

Bai; beste kirol askotan gertatzen den moduan, honetan ere presente daude. Lesio ohikoenak orkatilako bihurrituak eta zuntz-hausturak dira.

Taldean gimnasta bateranoak ere badaude?

Gimnasia erritmikoko taldean 5 urterekin hasten dira eta zaha-

rrenak 21 ditu, oker ez banago. Klub berean adin askotariko jendea elkartzen da, beraz. Hori aberasgarria da. Helduenek duten lan egiteko moduak eragina du gazteenengan. Helduen taldea konprometitua eta saiatua bada, gazteenen erreferentzia bihurtuko dira. Horregatik da garrantzitsua adin guztietako jendearekin lan egitea.

Zein dira gimnasta on batek izan behar dituen ezaugarriak?

Hiru aipatuko nituzke: malgutasuna, indarra eta hobetzeko gogo. Ezaugarri horiek hobetu eta entrena daitezke beti, baina komenigarria da berez horietan abila izatea. Beti hobe daiteke, baina baldintza jakin batzuk eskatzen dituen kirola da. Beste kirol batzuetan gertatzen den moduan, hemen ere hutsetik hastea baino hobe da ezaugarri on batzuk izatea.

Zein txapelketa dituzue orain?

Denboraldiaren amaieran gaude jada eta agenda ez dugu oso bete. Asteburuan kurtso amaierako gimnasia erritmikoko erakustaldia eta L'Hospitalet-eko torneo izan dira. L'Hospitalet-ekoan kirol aerobikokoek hartu dute parte eta erakustaldian gimnasia erritmikoek bakarrik.

"Sorpresa handia izan da guretzat hainbeste domina lortu izana"

"Entrenamendu asko egin behar dituzte, gogorra da batzuetan"

"Funtsezkoa da gimnastek euren artean harreman ona izatea"



Neskatila hezitzailearekin haurreskolan. | ROBXMINE

Erronka berri bat: kultura aniztasunean irakastea

Blanca Olalde: "Arazo gisa ikusi beharrean baloratzen ikasi behar dugu"

LARRAIZ ZEBERIO | ARRASATE
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea da Blanco Olalde, eta kultura aniztasunak irakaskuntzara ekarri dituen aldaketak aztertzen dihar du doktore-tesian. Dio erronka berri baten aurrean gaudela, eta argi dauka erronka horri aurre egiteko baliabide gutxi ditugula oraindik ere. Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean, baloratu eta gauza positibotzat

hartu behar dugula dio. Horretarako, estereotipoz jabetu eta horiek gaintzea beharrezkotzat jotzen du.

Gezurrezko korrelazioak

Ohikoak dira gure gizartean ondorengo estereotipoak: ikasle etorkinen errendimendua baxuagoa da, familia etorkinek hezkuntzarekiko interes falta agertzen dute, etorkinekin ikasiz gero emaitza akademikoak txarragoak

dira... Dio estereotipo horiek txiki-txikitatit garatzen ditugula, eta konturatzeke. Gezurrezko korrelazioak direla dio Olalde, eta kezka sortzen dutela irakasleen artean. "Aldaketa orokorrak behar dira", azaltzen du. "Hezkuntza komunitateko kide guztiek hartu behar dute parte: irakasleek, ikasleek, familiek...". Jakinarazi du Garatu programan aniztasuna bideratzeko ikastaroak eskaintzen dituztela.

Ikus-entzunezkoen kontsumoa nerabezaroan

Amaia Pavonek dio nerabeek haien erreferente sozialak bilatzen dituztela produktu horietan

L.Z. | ARRASATE
Amaia Pavon (Arrasate, 1984) ikus-entzunezkoen komunikazioan aditua da, eta doktore-tesia egiten ari da nerabeen eta lagun taldeen ikus-entzunezko kontsumo ohituren inguruan. *Unibertsitate.net* atarian irakurri diogu nerabeek ikus-entzunezkoak kontsumitzea nahi bada, gazteentzako propio sortutako produktuak ekoitzi behar direla, eta Pavonek uste du, gaur gaurkoz, ez dela horrelakorik existitzen.

Pavonen doktore-tesiaren helburuak bi dira: digitalizazioaren garaian nerabeen kontsumo

ohiturak zeintzuk diren ikertzea, eta Gipuzkoako nerabeen audientzia-profila nolakoa den aztertzea, lagun-taldearen eta ikus-entzunezkoen artean sortzen diren interakzioan arreta berezia ipiniz. "Ikus-entzunezkoak eguneroko bizitzaren parte dira", dio Pavonek. "Telesailak jarraitzen dute produktu izarra izaten (...) Digitalizazioaren eta sare sozialen aroan, oraindik ere, nahiago dute telebistan eta familian ikusi ikus-entzunezkoak". Produktu horietan nerabeek eta gazteek haien erreferente sozialak bilatzen dituztela dio Pavonek. "Musikak

eta horren inguruan sortutako ikus-entzunezkoek ere berebiziko garrantzia dute nerabezaroan. Saio horietan agertzen diren pertsonaiak, estiloak, janzkerak eta esaerak erabakigarriak dira nerabeen identitatearen eraikuntzarako".

Euskarazko ekoizpena

Gaztelarazko produktuak gehiago kontsumitzen dituzte gazteek, eta horren aurrean ere galdetu diote Pavoni *Unibertsitate.net* atarian. Arrasatearrak ondorengo gogoeta egin du: "Alderatzen badugu kuantitatiboki zenbat produktu ekoizten diren euskaraz eta zenbat gaztelaniaz horrek berak ezartzen du langa (...) Gazteak euskarazko ikus-entzunezkoei begira jarri nahi baditugu, sortu beharko dugu haientzat propio egindako produkturen bat euskaraz, eta gaur gaurkoz ez da horrelakorik existitzen".

Udan garrantzitsua da umeen hidratazioa gehiago zaintzea

L.Z. | ARRASATE

Udan bero handiagoa egiten du, eta ohikoena da umeek denbora gehiago ematea kanpoan. Jarduera fisikoa ere handiagoa da. Umeen hidratazio maila gertutik zaindu behar dela gogorarazten dute adituek. "Bizitzako lehen urtean, umeek, egunean batz bestea 0,6 litro ur edatea komeni da, zortzi urtera arte 1,8 litro, eta bederatzi urte-tik gora 2,5 litro", diote.

Ura behin eta berriro eskaintzeko gomendatzen dute adituek, baita ere umeek —batez ere txikiek— edaten duten ur kopurua zaintzea. "Ez itxaron egarriak egon arte. Egardia bera deshidratazio sintoma da". Edari mota ezberdinekin jokatzeko gomendatzen dute —ura, zukuak, irabiatuak...— umeek errazago edango dutelakoan.

Frutak eta barazkiak ere hidratazioan oso lagungarriak direla adierazten dute.

Arreta berezia eskatzen dute haur txikien kasuan. "Ezin dute ezinegona hitzez adierazi. Gogo falta, makalaldia, sumingarritasuna, malko gutxi... sumatzen badira hartu neurriak lehenbailehen. Haur txikiendako egokiena itzaletan egotea da, eta aireztatutako kokapen batean".

Babestu azala eta begiak

Garrantzitsua da eguzki izpiengandik ere babestea: larru azalerako krema egokiak, txapelak, eguzkitako betaurrekoak... neurri guztiak izango dira ongi etorriak. Gogoratu bero-kolpeek eragin handiagoa dutela haurrengan helduengan baino.



Mutikoa bustita. | ABEL JORGE

ERREZETA

Melokotoiarekin eta limoiarekin egindako fruta irabiaki goxoa

Iritsi da udaberria eta sasoiko fruta koloretsuak bertan ditugu. Melokotoiarekin eta limoiarekin egiteko moduko errezeta emanago dizuegu. Irabiatua egiteko beharko ditugu: 6 melokotoi, 2 limoi, 400 ml esne gaingabetua eta azukrea —neurria hartu—.

Zuritu melokotoiak, kendu hezurra eta zatitu. Atera zukua bi limoiei eta bota melokotoi zatien gainetik. Sartu nahasketa hori irabiagailuaren ontzian eta gehitu esnea. Irabiatu krema homogenea lortu arte. Krema arinagoa nahi badugu gehitu diezaiokegu jogurt edo izozki gaingabetua. Helburua da irabiatu krematsua lortzea.

Irabiatu egokia da egun luzeagoak eta beroagoak ditugun honetan.

TXANGOA FAMILIAN

Lizarragako bentatik San Adrian baselizaraino

Sakanako Garapen Agentziatik seme-alabekin egiteko moduko txangoa proposatzen dute. Urbasa, Andia eta Sakana begi bistan izango dituzue 7,84 kilometroko ibilbidean. Oinez egitea gomendatzen dute. Lizarragako bentatik abiatuko gara —aparkalekua bertan—, eta San Adrian baselizarainoko ibilbide lasaia egingo dugu. "Ibilbidea bide garbietan barrena doa, alde batera Urbasako eta Andiaiko ikuspegi osoa izango dugu, eta beste aldera Sakanako bailara ia bere osotasunean ikusiko dugu". Etxarritik edo Abarzutatik igo daiteke Lizarragara. Taberna eta jatetxe zerbitzua dituzte bentan.



KULTURA

Askotariko ekintzekin hasi dira Bergaran gaztetxearen urteurren ospakizunak

- Magia, jolasak eta gai sozialak izan dira nagusi asteburuan zehar izandako ekitaldietan
- Aste honetan ere egongo dira ekintzak hamalagarren urteurrenaren harira

TXOMIN MADINA | BERGARA

Asteburuan hasi dituzten Bergarako gaztetxearen hamalagarren urteurreneko ospakizunak ez ziren modurik onenean hasi: aspaldian euririk egin ez duenez lurra oso siku zegoen eta segurtasun kontuengatik, bertan behera geratu ziren egubakoitzeko suzko errubarak. Gaztetxeko kide Aitor Narbaizaren esanetan baina, asmoa da datorren astean egitea.

Kale egin ez zuena, Imanol Ituño magoa izan zen. Antolatzailleen esanetan, ikusle kopuruari dagokionez, jende asko gerturatu zen Ituñoren magia ikuskizunera, eta honek zur eta lur utzi zituen bere trukoekin. Ikusle ugari atera zituen agertokira askotariko truketan laguntzeko, eta horretan ere ondo erantzun zuten ikusleek.

Afari-tertulia

Zapatuan, bestelako gaiak izan zituzten gaztetxean. Azken asteotan hainbeste zeresan eman duen Bartzelonako Can Vies gune sozial autokudeatua barrutik ezagutzen duten gonbidatuak izan zituzten, eta hango errealitatearen berri jasotzeko aukera izan zuten gaztetxeko patioan afaldu bitartean: Can Vies zer izan zen, kaleratzea nola bizi izan zuten, egun egoera zein den...

"Uste dut asmatu dugula formatuan, izan ere gertuko afari bat eginda, giro goxoan, eurak lasaia ibili ziren gauzak azal-



Imanol Ituñoek uneoro esaktu zuen publikoaren kolaborazioa magia trukoak egiteko. | IMANOL SORIANO

tzeko orduan, baita ere gu galderak egiteko orduan ere" dio Aitor Narbaizak.

Atzo umeen eguna izan zen, eta etxeko txikiek ederki pasatzeko aukera izan zuten. Ekintzetan eta bazkarian jende dezente egon zen, eta gurasoen asanbladak ere hartu zuen parte bertan.

Ekitaldi gehiago

Hamalagarren urteurreneko ekintzek astean zehar ere jarrai-

tuko dute. *Gaur, Zeinek hitz egi- ten du Nafarroaren izenean?* hitzaldi solasaldia egongo da Erlantz Urtasunekin. Bihar, martitzena, *Zibergara: urtebete sare- tzen* hitzaldi solasaldia egongo da, eta gero kontzertua, Imanol Epelderen Etxepare Rap proiektuarekin. Eguaztenean *Emozioak antzeztan* izeneko tailerra egingo dute, eta egunean, pintxo-poteo girotua egingo dute 19:00etan hasita.



Zapatuan egin zuten afari tertulia. | T.M.

PAU GUERRA | CAN VIESEKO ASANBLADAKO KIDE IZANDAKOA

"Can Vies askotariko kolektiboek erabiltzen dute elkarlanean, hori da duen aberastadunik handiena"

Pau Guerra ez da bilbotar honen benetako izena, baina Bartzelonako Can Vies gune sozialeko autokudeatuaren asanbladako kide guztiek bezala, izen hori darabil prentsarekin berba egiteko. Ondo ezagutzen du gune soziala, bertan bizitakoa da-eta.

Zein da Can Viesen egoera?

Eraikina hustuta, eraisteko lanak hasi zituzten,

baina mobilizazioengatik, Udalak bertan behera utzi zituen lanak. Asanbladak erabaki du berreraikitzea, eta horretan ari gara. Ez gaude bakarrik, jende profesionala ere, arkitektoak-eta, laguntzen dabilta.

Zergatik eraisteko lanak geratzeko erabakia?

Uste dugu ez zutela espero kalean egondako erantzuna: jende mordo a irten zen kalera aste oso



batean zehar. Hanka sartu dutela konturatu dira. **Zeintzuk erabiltzen dute Can Vies?**

Auzoko dantza taldeak, auzoko egunkariak, musika taldeek, asanblada politikoak... Ez du ideologia bakarra: kolektibo anitzek erabiltzen dute elkarlanean; hori da Can Viesen aberastasun handiena.

Zergatik dira garrantzitsuak Bartzelonan Can Vies bezalako guneak?

Bartzelona kapitalismoaren hiri handi bat da, eta beharrezkoak dira Can Vies bezalakoak administrazioetik kanpo egon eta gauzak gure kontu egiteko. Can Vies sinbolo bat da: hiritarrak nekatuta daude, eta horrek eragin ditu egon diren mobilizazioak.

Can Viesek bizirik jarraitzen du, beraz?

Bai, dagoen sentsazioa garaipenarena da. Berre- raikitzen badugu, sekulakoa izango da.

Koldo Eleizalde txapelketaren irabazleek jaso dituzte sariak

- Zapatuan Udal Pilotalekuan egindako ekitaldian elkartu ziren aurtengo saridunak
- Antolatzaileak, pozik ikus-entzunezkoen eta ahozko generoan izandako gorakadarekin

TXOMIN MADINA | BERGARA

San Martin ikastetxeko, Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundia ikastolako 5 eta 6 urteko ikasleen kantuek eta dantzek girotu zuten ekitaldian banatu zituzten zapatuan aurtun 29. edizioa izan duen Koldo Eleizalde literatur

lehiaketaren sariak. 514 lan jaso dira denera aurtun: 347 ipuin, 12 bertso-sorta, 42 komiki eta 113 ikus-entzunezko.

"Partaidetzan, aurreko urteetako bidetik jarraitu dugu. Ikus-entzunezkoetan eta ahozko generoan izan da gorakada, eta horre-

kin pozik gaude, indartu gura dugun generoa da-eta" zioen ekitaldiaren ostean lehiaketaren antolatzailea den Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuburu Estepan Plazaolak. Kalitateari dagokionez, ipuin idatzietan nagusien mailako lanena azpimarratu zuen.

Irabazleak, pozik

Irabazleak gustura zeuden sariarekin. "Ez nuen espero. Urretxukoa naiz, eta Bergarako Idazle Eskolan nabilenez, parte-hartzea erabaki nuen", zioen, ipuin idatzien saileko 5. taldean lehen saria eskuratu zuen Mikel Babianok. Kontaketa eta interpretazioan 3. taldean irabazle izan zen taldeko

kide Ibai Gonzalezek ere sorpresaz hartu zuen saria: "Gure lana eskolarako proiektu bat zen. Ikusiko dugu nola banatu saria".

Argazkiak eta irabazle zerrenda ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Sari banaketaren ostean, talde argazkia atera zuten irabazleak. | T.M.



Mariaren Lagundiko umeak, *Xalbadorren heriotzean* abesten. | T.M.

Dantzan eta kantuan ospatu dute Portaloikoek elkartearen hamargarren urteurrena

Arrasatearrez gain, beste hainbat herritatik etorritako kantu-taldeetako kideek ere hartu dute parte



Eguzkitik babesteko, Biteri plazan ere abestu zuten. | IMANOL SORIANO



Dantzan ere gogoz aritu ziren. | I.S.



Hogei abesti inguru kantatu zituzten Herriko Plazan egindako kantaldi nagusian. | I.S.

T.M. | ARRASATE

Hamar urte ez dira egunero betetzen eta Portaloia Kultura Elkar-teak handitasunez ospatu zuen zapatuan urteurren borobila. Arrasatearrek ez ziren bakarrik egon, izan ere Euskal Herriko hainbat herritako kanta-taldeetako kideek ere hartu zuten parte ospakizunetan. Eibarkoak, Aretxabaleta-koak, Bilbokoak, Gernika alde-koak... 210 pertsona inguru elkartu ziren bazkaltzeko, baina kantaldi eta dantzaldietan jende gehiagok ere hartu zuen parte.

Giroa, ezin hobea

Egun luzeari indartsu ekiteko mokadutxo egin ostean, herriko erdigunean kantujira egin zuten, eta gero, 13:00ak aldera, kantaldi nagusia Herriko Plazan. Patxi Goikolearen kopia batzuk abestuz hasi zuten berau, eta honen ostean, beste hogei kanta inguru etorri ziren, denak ere aski ezagunak: *Furra-furra*, *Baratze bat*, *Baldorba*.. Herriko eta kanpoko musikariek jarri zuten musika.

Bazkalostean, Herriko Plaza-ira itzuli ziren eta kasu honetan, dantza egiteko orduan, Patxi Montero izan zuten gidari. "Eguna oso ondo joan da, begira nola ari diren dantzan!", zioen Portaloiko kide Salva Dalmauk egunaren balorazioa egiterakoan. Ez zitzaion arrazoirik falta: dantzan erakutsi zuten sasoia ikusita, beste hainbeste urte konturatu barik beteko dituzte.



Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxoak eta kantu tailerretako abeslariak elkarrekin kantuan. | AMAIA TXINTXURRETA

Filmetako doinuak eta euskal kantak Ganbara Txikikoen azken kontzertuan

- Ikasturte bukaerako emanaldia eskaini dute Santa Ana antzokian
- Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxoak eta kantu tailerretakoak elkartu dira

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Pantera arrosa filmeko doinuek egin zien harrera Santa Ana antzokian elkartutako guraso eta senideei zapatu arratsaldean. Ganbara Txiki abesbatzako neska-mutikoei *Etxean bakarrik* eta beste film ezagun batzuetako abestiekin jarraitu zuten kon-

tzertuaren lehen zatia. Ikasturte bukaerako emanaldia izan zen, eta aurten berezia, Ganbara Txikiren hamargarren urteurrena dela-eta.

Tailerretako txikien txanda etorri zen gero, eta hiru abesti eskaini zituzten horiek, Miren Gurutze Plazaola zuzendariaren

aginduei adi-adi jarraitzen zieten bitartean. Tailerretako hirugarren taldeak eta Ganbara Txikitxoak elkarrekin jardun zuten, eta oso ezagunak diren abestiak eskaini, besteak beste, *Nire herriko neskatxa maite* eta *Sarri sarri*.

Aitor Biainen aginduetara Ganbara Txikik erakustaldia

egin zuen ondoren, euskal doinu ezagunak abestuta: *Xalbadorren heriotzean*, *Habanera*, *Udazken koloretan*... Eta bien bitartean Santa Anan zeuden ikusleak gustura baino gusturago. Kontzertua bukatzeko abeslari guztiek elkarrekin jardun zuten oholta gainean.

Urteurreneko ekitaldiekin jarraituko dutela opor ostean iragarri zien Biain zuzendariak elkartutakoei, beste kontu batzuen artean piraten emanaldi bat izango dela. Behin kontzertua bukatuta mokadutxoak jan zuten elkarrekin abeslari gaztetxoek, eta horien gurasoek eta senideek.



Ganbara Txikitxoak taldea emanaldiko une batean. | MIRARI ALTUBE



Kantu tailerretako txikienak pozik kantuan. | AMAIA TXINTXURRETA



Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez Elkar Hezi ikastetxeko hainbat ikasleekin. | ELKAR HEZI IKASTETXEA

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen esanei adi-adi

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko ikasleei 'Baga biga higa' izeneko hitzaldi kontzertua eskaini diete

M.A. | OÑATI

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez izan zituzten gonbidatu egubakoitzean, Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek. *Baga biga higa* izeneko hitzaldi kontzertua eskaini zieten Oñatiko zinema aretoan, DBHko

hirugarren mailako neska-mutikoei.

"Euskal musikagintzaren historian zehar ibilbidea egin dute, 60 hamarkadaren aurretik hasita, gaur egun arte. Garai bakoitzeko testuinguru historikoak

musikarien gaitan eta estiloan izan duen eragina azpimarratu dute, baita musikak berak, euskal gizartean sortarazitako mugimendua ere", zioten bukaeran ikastetxeko kideek. Ikus-entzunezko azalpenak, gainera, garai bakoitzeko kantu esanguratsuekin tartekatuta zituzten, besteak beste, *Txoria txori*, *Loretzkoa*, *Lau teilatu*, *Zure begiek*, *Ilargia*... Eta ikusleak ere gustura beraiekin batera kantuan. Emanaldi aurretik Oñatiko txokoak erakutsi zizkieten bi abeslariari, hainbat ikasleak.



Txorbela otxotea eta Estokolmoko abesbatza elkarrekin abesten. | M.A.

Suediako doinuak ekarri ditu Arrasatera Estokolmoko Katedraleko abesbatzak

M.A. | ARRASATE

Arrasateko Txorbela otxoteak gonbidatuta Estokolmoko Katedraleko abesbatza izan zen atzo, San Frantzisko elizan. Aurretik, baina, harrera egin zien Kepa Urteaga zinegotziak udaletxean, otxoteko kideek lagun eginda.

Txorbelak hasi zuen kontzertua, Mikel Arregik zuzenduta, baina ekitaldi motza eskaini zuen horrek. Ondoren suediarren

txanda etorri zen. Profesionalek osatutako abesbatzak musika erromantikoa eta egungoa bateratzen dituen kantuak eskaini zituen Michael Waldenbyren gidaritzapean. Eta euskaraz kantatzera ere ausartu ziren; zuzendariak berak egindako Kirmen Uriberen poema baten bertsioa estreinatu zuten. Eta bi abesbatzek elkarrekin bukatu zuten *Maitia nun zira* abestuta.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



ALDAPE taberna ALDAPE Jatetxea Iturriotz kalea 41 Arrasate Tel.: 943 79 63 69 Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaeretako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).	ALZU ALZU, S.L Ehiza eta arrantza Arantzazuko Ama, 2 Oñati Arropetan %10eko beherapena.	AZPEITXI JATETXEA AZPEITXI Jatetxea* Aranerreka kalea 13, Bergara Tel.: 943 76 55 00 Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.	Esko Sport ESKO SPORT Kirol denda Intxaurtxueta 5 Eskoriatza Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.	ESTACION SERVICIO ARRASATE Gasolindegia San Andres 7 Arrasate % 2ko gasolindegian erregeia erosita. % 2ko dendako produktuetan.
GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak GAES Entzumen zentroa Otalora 18 Arrasate Zurradero 10 Bergara %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)	GAHIR Fisioterapia osteopatía GAHIR Fisioterapia / Osteopatía Aranburuzabala 6 behea Eskoriatza %50eko deskontua lehenengo kontsultan.	GRACIAN MERTZERIA GRACIAN Mertzeria Bidekurutzeta kalea 6, Bergara 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.	INSTITUTO OPTICO INSTITUTO OPTIKOA Bidekurutzeta 10 Bergara %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..	IONE MOÑUX fisioterapia zentroa IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa Burdinate plaza 2 Bergara Lehenengo sesioa, sesio erdi..
ITSASLUR ITSASLUR Jatetxea Zerkaosteta kalea 3 Arrasate Tel.: 943252632 Txuleta zaharra: %10eko deskontua ekainean eta uztailean	JAUJA KIROLAK JAUJA KIROLAK Irizar pasealekua 1 behea, Bergara Produktu guztietan %5eko deskontua..	LONBIDE OINETAKOAK LONBIDE Oinetakoak Bidekurutzeta kalea 5, Bergara Produktu guztietan %10eko deskontua.	MAGDALENA GASOLINDEGI MAGDALENA Gasolindegia Santxolopetegi auzoa Oñati % 2ko deskontua gasolindegian erregeia erosita.	MARKIEGI MARKIEGI JANTZI DENDA Olarke kalea 2 Arrasate Produktu guztietan %10eko deskontua.
MIREN GARAI MIREN GARAI Zarugalde kalea 23, 2 ez. Arrasate Tel.: 943 799 690 Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskue-tako tratamendua doan.	ML ML Ile-apaindegia Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965 "Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua. Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.	MULTIÓPTICAS lehen zerbitzu optikoetan MULTIÓPTICAS Optika Juan Carlos Guerra, 1 behea Arrasate Ibargarai, 16 Bergara %15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..	NEBRASKA NEBRASKA taberna Zarugalde 35 - Arrasate Tel.: 943793909 MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan Interneteko menuetan %5eko deskontua	NINIKALORADENDA NINIKALoradenda Ramon Maria Lili, 8 Bergara %10eko deskontua artikulu guztietan.
PORTALOI OPTIKA PORTALOI optika Erdiko kalea 10, Arrasate %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).	P. MANSO OPTICA OPTICOS OPTOMETRISTAS MANSO Optika Irizar pasealekua 2 Bergara Produktu guztietan. %15eko deskontua (beste eskaintza batzuekin, eskaintza ez metagarria).	SARA MERENDERUE SARA MERENDERUEA Jatetxea Meatzerreka auzoa 19, Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate Tel.: 943 77 15 86 Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).	TABERNA-BERRI JATETXEA TABERNA-BERRI Jatetxea* Durana kalea 26, Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67 Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.	ZABALA Jatetxea ZABALA Jatetxea* Labegaraia 14, Bergara Tel.: 943 76 42 57 Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:
Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.
Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **50 €.** | **943 25 05 05**
kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GURE MUSIKA TALDEAK

FRANZ
DETOUR

Franz Detour eta Ramon Detour. | JAGOBA DOMINGO

"Proiektu pertsonal moduan hasitako bidaia Franz Detour bihurtu da azkenean"

- Palentziako, Uruguako, Bergarako eta Arrasateko taldekideak batzen ditu
- Hamabi kantuz osaturiko kontakizuna kaleratzeko prest dago laukotea

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Franz Detour ez da ohiko talde bat; Ramonesen antzera, abizen moduan hartu dute Detour, eta, oraindik zuzenekoak prestatzen dauden arren, esperientzia handiko musikariak ditu. Historia bitxia dago Franz Detourren atzean.

Nondik dator Franz Detour izena? Hasieran Detour izan behar zuen

taldearen izenak, baina, itxuraz, badago horrela deitzen den talde bat. Film baten titulua da *Detour*, eta pelikularen protagonista Franz denez... Franz Detour. Gainera, taldekideek Fredi beharrean Franz deitzen zidaten.

Nola hasi zen abentura hau?

Ni [Franz Detour] Pure Man Enginoko abeslaria nintzen eta taldeak geldialdia izan du, hainbat arra-

zoiengatik. Hori ikusita, aspal-ditik buruan nituen ideia batzuk grabatzea erabaki nuen, eta horiekin esku artean dugun maketa jaio zen. Diskoa Pure man Enginoko Pablarekin grabatu nuen Palentziako Paramo Sound estudioan, eta kantuak Arrasatera ekarri ostean, horiei bizitza emateko talde bat sortzea erabaki nuen. Pixkanaka, Detour familia

sortzen joan ginen. Gaur egun, baterian Jabi Detour dago, Lord Witch bergararren baxu-jotzailea, Kevin Detour arrasatearra organo, piano eta gitarra erritmikoez arduratzen da, eta baxu-jotzaile lanetan Uruguaitik etorritako Ramon Detour dugu.

Lehenengo diskoa eta gero taldea.

Bai, ez da ohikoena, baina hala izan da. Martxoan ezkerreko daramagu entseatzen, eta, zuzeneko bat jotzeko irrikan gauden arren, oraindik guztiz enpastatzeko prozesuan gaude. Gainera, entseatzeko orduan arazoak izan ohi ditugu; garaje baten jotzen dugu eta horrek ordutegi zehatz bat jarraitzea dakar. Kontua da Arrasateko gaztetxeko lokaletako

zerrendan apuntatuta gaudela, baina ez du mugimendu handirik. Hemendik, lokala duten eta hura erabiltzen ez duten taldeei, baldin badaude, laguntasuna eskatu nahi diegu. Erabiltzeko asmorik ez badute, hurrengoei paso emateko eskatzen diegu, garaje batean entseatzea nahiko gogorra delako, batez ere uda partean.

Eta zuzenekoak orduan?

Gutxi barru hastea espero dugu. Dagoeneko hainbat eskaintza ditugu, baina, esan bezala, lokaleko lana amaitu nahi dugu. Azken finean, nik sortutako kantuak dira, eta gero, talde bezala bizitza eman behar diegu. Nik diskoa mahai gainean jarri arren, ostean taldekide bakoitzak bere ekarpena egiten dio kantu bakoitzari. Proiektu oso pertsonal bezala jaio zen eta musika estilo asko daude bertan, definitzea zaila da. Azken urtean eta duela hamalau urte grabaturiko ideiak entzun nituen diskoa egin aurretik, eta hamabi kantuak dira bidaia horren emaitza; seguruenik, *The Butchers Son* izango da maketaren izena. Hilabete gutxi barru kalean egotea espero dugu.

Hala ere, bigarrenean pentsatzen zabilatzate.

Gogor gabiltza lanean; abesti berriak, gainera, *gureagoak* dira, hasieratik denon artean konposatutakoak dira.

"Estilo asko daude bertan eta definitzea zaila da"

"Zuzenekorako irrikaz gaude eta gutxi barru hasi nahi dugu"

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Bergaran, Askarruntzen. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Hirugarren solairua. Leiho guztiek kanpora ematen dute. Etxeakusteko edo prezioari buruz hitz egiteko deitu telefono zenbaki honetara: 665 70 11 95

Bergara. Etxebizitza salgai Ibargarai 15ean. Bilogela, egongela, sukaldea, komuna eta garaje itxia prezioaren barne. Eguzkitsua. Aukera bikaina. 215.000 euro. Interesatuak deitu telefono hauetara: 626 81 71 28 edo 678 86 50 41

103. ERRENTAN EMAN

